

# **-(e)n... erlatibo aposatuak**

## **Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)**

**Victor Hidalgo Eizagirre**  
**Doktore Euskal Filologian**

Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboen inguruko bigarren artikulua da hau. Honetan izen ardatz determinatuen ondorengo *-(e)n...* atzizki substantibatu bideko aposizioak jorratzen dira. Euskal gramatikan barrena izan duten historia laburra bildu eta hainbat testigantza jaso eta gero, beren pisu estatistikoa neurtu da, ahozko nahiz idatzizko bi corpus nagusitan: %12,9 ezkerretiko erlatiboen aldean. Hauen balioaz zenbait kontsiderazio egin ondoren erlatibo arrunten aldean, erabileraren zenbait ezaugarri jorratu dira: esaldien luzerarekin duten zerikusia (zenbat eta esaldi luzeagoak, orduan eta aposiziorako joera handiago); aposizio hautsi eta hautsigabeen arteko joerak; aposizioen izen ardatz mugatu eta mugagabeen ezaugarriak; aposizioak partitiboan emateko joera; aposizioen erabilera harridura esaldietan; aposizioen gaitasuna erlatibo kateak osatzeko; komunztadura arazoak izen ardatza eta aposizioaren artean; ... Adibide ugariz azaldu da dena.

This is the second of a series of articles on relative clauses that expand to the right of their nominal head. In this paper, we study appositive relative clauses that surface following a specific nominal head and are formed by means of the nominalizing suffix *-(e)n*. We first summarize their short history in the grammar of Basque and gather some testimonies of their use. We then evaluate their use statistically in two major corpora which include both oral and written examples: 12.9% of use when compared with relative heads attached to the left of the nominal head. We make some considerations regarding their characteristics as compared with regular relative clauses and examine some properties regarding their use: the correlation between the length of the relative clause and their use (the longer the relative clause the stronger the tendency for appositive relatives); the tendencies between truncated and non truncated appositives; the properties of specific and non specific heads of appositives; the tendency to use partitive case in appositives; the use of appositives in exclamative clauses; the ability that appositives show to form relative chains; agreement problems between the nominal head and the appositive. All this will be illustrated with a large number of examples.

## 0. Sarrera<sup>1</sup>

Aipatzen genuen *Erlatibo hautsiak* artikuluan,<sup>2</sup> nola XX. mendeko kanon Azkuerekin sortuak zorrotz agintzen duen erlatiboak euskaraz laguntzen duten izen ardatzaren aurretik eman behar direla beti, eta ez ondoretik, inguruko hizkuntzek egin ohi duten legean. Bertan ikusi genuen hori ez zela erabat egia. Ezta ardatzaren ezker hasi ohi diren erlatiboen artean ere, zeintzuetako %8,0 ere *hautsita* eman ohi diren, modu ez-kanonikoan, artean osagaiak erakutsiz ardatzaren eskuin ere. Proporzio hori, gainera, nahikoa hazten da erlatibo luze, fosildu, ezezko edo libreen artean. Baina ez dira erlatibo hautsi horiek kanona betetzen ez duten bakarrak, ez ugariak. Euskararen alde eta aldi guztietan dira eta izan dira arruntak osorik izen ardatzaren eskuinetik, ondoretik, emaniko erlatiboak, adjektiboak hartu ohi duen ohiko gunean emandakoak.

Era honetako erlatiboak XX. mendean gaitzetsiak, baztertuak edo ahantziak izan dira, oro har, gramatika eskuliburu eta eskoletan,<sup>3</sup> inoiz faltatu ez bada ere ikastunen lanetan hauen aipamen, azterketa edo errebindikazioen bat. Azkena, eta eskertzekoa, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak perpaus erlatiboetarako buruz prestatu txostenean (Euskaltzaindia, 1999), non jasotzen diren aukerok guztiak, bi sail nagusitan banatu litezkeenak:

1. Osorik izen ardatz determinatu baten ondoretik eman erlatiboak; eta
2. Osorik izen ardatz soil, determinatugabe baten ondoretik emanak.

### 0.1. Osorik izen ardatz determinatu baten ondoretik aposatutako erlatiboak

Ardatz determinatu baten ondorengo erlatiboen artean hiru motatakoak aurkitu genitzake:

1. *-(e)n...* atzizki bidez aposatutako erlatibo substantibatuak.
2. Soilik *bait-* partikula bidez aposatutakoak (BAIT- erlatiboak).
3. Galdetzaile bidez aposatutako erlatiboak (ZEIN erlatiboak).

Artikulu honetan soilik *-(e)n...* atzizki bidez aposatutako erlatiboak jorratuko ditugu.

Segidakoan antzekoak:

- (1) Behin bazen **errotari bat** *hiru seme zituena*. (De Rijk, 1979, 535)
- (2) Nun dira aitaren **liburuak**, **prestatu nauzkitzunak**? (Oihartzabal, 1985, 31)
- (3) Badira **lan batzuk** *derrigorrez egin behar izaten ditugunak*.

---

1. Lana, besteak beste, 1998-99 eta 99-00 ikasturteetan Eusko Jaurlaritzak eman ikerketa bekei esker burutu ahal izan da. Ikasturte biotan izan naiz Baionako Unibertsitate Arteko IKER Euskarari eta Euskal Testuei Buruzko Ikerketa Taldean (UMR 5478 / CNRS - Université Michel de Montaigne Bordeaux III-UPPA), Beñat Oihartzabal zuzendariaren gidaritzapean.

2. Hidalgo 2002, erlatiboen inguruko artikulu sail honetako lehena.

3. Nondik hauen ia desagertzea ere gaur egungo euskara estandar askotatik.

- (4) Mikelen **lagunak**, *atzo gurekin etorri zirenak*, prest daude lanerako.
- (5) Han topatu nuen **gizon hori**, *lehen esan dizuedana*.
- (6) Liburutegi horretan aurkituko duzu **libururen bat antzeko marrazkiak dituen**.
- (7) **Jende asko** da *dirua baino ez duena buruan*.
- (8) Lehenbailehen erantzun beharko litzaieke **hitz horiei**, *denok horren ongi entzun ditugunak*.

### 1. -(e)n... erlatibo aposatuak euskal gramatika tradizioan

Era honetako erlatiboak garai eta bazter guztietako autore eta gramatikariek darabiltzate beren idazkeran, baina ez da hauen aipamenik, ez alde ez kontra,<sup>4</sup> Ithurriren gramatika arte (1895). Eta honetan ere ez da jasotzen liburuko azken ohar garatu gabeen artean baino, iruzkinik gabe, segidako bi erlatiboen arteko parekotasuna (bat kanonikoa, ardatzaren ezkerretik emana, bestea ardatz determinatuaren ondoretikoa -(e)n... atzizki substantibatuaren bidez) (1895, 446):<sup>5</sup>

- (9) Urusa *aita on batek gidatzen duen haurra*, ou Urusa **haurra aita on batek gidatzen duena**.

Ithurrik aurretik ere jasotzen du, partitiboaz ari dela, halako erlatibo bat (Haranederrena), ezezko esaldi baten mende:

- (10) Prudentki gobernatzan bazare ez da izanen ez **aitarik**, ez **amarik**, ez **senharrik**, ez **emazterik** *maiz kommunitzetik debekatu nahiko zaituenik*.

Gavelek egingo die erlatibo aposatuoi lehen iruzkin gogoangarria 1929ko gramatikan, jakingarriki konparatuz genitiboen eta erlatiboen eskuineratzea (2. kap., 7-9):

Nous avons dit que (du moins dans l'état actuel de la langue) les génitifs doivent normalement être préposés aux mots dont ils sont le complément déterminatif; ... Mais pour des raisons diverses (retard dans le mouvement de la pensée, ..., désir d'attirer l'attention sur le génitif en le rejetant à la fin de la phrase, etc), il peut arriver que le génitif ne se trouve pas à la place qu'il devrait occuper normalement, et soit rejeté plus loin. / ... / Seulement il est à remarquer qu'avec les génitifs ordinaires les rejets de cette sorte sont infiniment plus rares qu'avec les adjectifs, ... Mais ils se produisent souvent avec certaines expressions qui sont en réalité des génitifs; nous voulons dire avec les propositions relatives: ... / ... / *Ezagutzen dituzua Donibane Garazitik jiten diren Joanesen adiskideak?* / Le membre de phrase *Donibane Garazitik jiten diren* qui constitue une proposition relative, ..., est placé avant l'expression *Joanesen adiskideak*, ..., dont il est le complément. Cette intercalation n'offre pas ici d'inconvénient, parce que la phrase est assez simple; mais on conçoit que si la proposition intercalée était longue et surchargée elle-même d'incidentes, l'ensemble de la phrase serait embrouillé et lourd. En ce cas le rejet deviendrait nécessaire. Dans l'exemple que nous avons choisi il ne s'impose

4. Ez da gauza bera gertatzen, esateko, izen ardatz soil determinatugabeen ondoretik emaniko erlatiboekin (agerian gaitzetsiak jada Larramendiren gramatikan —1729—), edota ZEIN- erlatiboekin (gramatika berean azalduak).

5. Ithurrik era berean hobesten du -(e)n... aposizioen erabilera (*Gure Aita zeruetan zarena*), *zein...* erlatiboan aldean (1985, 20).

nullement, mais il est possible néanmoins, surtout si la phrase est pensée avec une certaine lenteur; et l'on pourra dire, en marquant une pause après le premier élément décliné de l'agglutination, c'est-à-dire après *adiskideak*: *Ezagutzen dituzuia Joanesen adiskideak, Donibane Garazitik jiten direnak?*

Aposizioaren erabilpenaren azalpen argigarria.<sup>5bis</sup> Lafittek ere aipatzen du erabilera, *esaldiak arintzeko* modu, bestelako garrantzirik gabe (1962, §752, 398):

Parfois, pour alléger la phrase, il arrive que l'on dégage la relative et qu'on la place après le mot qu'elle détermine; alors l'article vient représenter après le conjonctif le terme déterminé. / Ex. *gizon bat ikusi dut, makil batekin zoana ...* / En somme, c'est un cas particulier de construction appositive.

De Rijkék ere argi azaltzen du erlatiboan erabilera euskaraz (1972, 168-171):

Free relative clauses are quite frequent in Basque texts, because they provide a substitute for extraposition. Extraposition of relative clauses is not possible in Basque, but the existence of free relatives allows one to put sentential and other modifiers after their head nouns. / ... / *Bein ba zan errege bat, zazpi seme-alaba zituena.* / ... / If the relative clause is very long, the pseudo extraposed form is more acceptable than the normal form. / ... / This use of a free relative with a full lexical antecedent — I will call this phenomenon “pseudo-extraposition”— is a welcome device that can serve to eliminate unacceptable stacking of relative clauses. / ... / A much more extreme example ... can be found in a book by Pedro Miguel Urruzuno “Euskalerritik Zerura”. There we read on page 13: *Hainbeste maite zuan amona, beretzat amarik onena izandu zana, hainbeste laztan gozo eman zizkana, zerurako bidea ain ondo erakutsi ziona, ill zan larogeita hamaika urterekin.* / ... / If the device of pseudo-extraposition were not available, the sentence would take on this shape: *Zerurako bidea ain ondo erakutsi zion hainbeste laztan gozo eman zizkan beretzat amarik onena izandu zan hainbeste maite zuan amona ill zan larogeita hamaika urterekin.* / Though ... may be grammatical, it is utterly unintelligible to the native speaker. (Ik. ere De Rijk 1979, 535).

(11) Ezagutzen dut **gizon bat**, *biziki aberatsa dena*

(12) Irakurri dut **liburua**, *jaz prestatu zinautana*

Oihartzabalek ere, adibide biok jaso ondoren, aipu berezia egiten dio erlatiboan ugaritasunari (1985, 119-120): «Un point doit être d'abord souligné: c'est la très grande fréquence de ce type de construction. Dans le langage écrit il intervient souvent lorsque les relatives sont longues. Dans le langage quotidien, surtout chez les enfants, il apparaît encore plus fréquemment.» Halako erlatiboek arituko da 1987an ere (179-186).

Villansantek ere aipatzen ditu aposiziook (1976, 81-84), nahiz bereizi ez hauek ardatzik gabeko erlatibo libreetatik. Guztien nahasian, segidako aposizioak ere jasotzen ditu:

(13) **Jaunaren Bildotsa**, *munduko bekatua kentzen duzuna*<sup>6</sup>

---

<sup>5bis</sup>. Era berean Gavelek *-(e)n...* aposizioak gomendatuko ditu *zein...* erlatiboan aldean (1929, 145-146): *Ba-zen han haur bat, joan dena gero.* // *Han ziren Joanes eta Bethiri, joan direnak gero.* // *Ba-zen han ostatu bat, ohoinak atzeman dituztena.*

<sup>6</sup>. *Agnus Dei qui tollis peccata mundi* «traducido por los Benedictinos de Belloc en esta forma sustantivada» —dio—.

- (14) othe da **nehor** ... *fiko* **biltzen duenik** (Ax 144)
- (15) Ezta **tormenta kapitainik** <*hanbat egiteko*> **emaiten duenik** (Ax 145)
- (16) **denbora iragana**, ... **galdu genduena** (Ax 113)
- (17) ... **lehenbiziko pena** ... *bekhatoreak izanen duena* (Ax 371)
- (18) **nor** den herrian ... *gosez* **denik** (Ax 154)
- (19) **egin behar zenduen deskargua** eta **egin eztuzuna** (Ax 165)
- (20) **Hirurgarren erremedioa** <*ez haserretzeko eta koleraren iraungitzeko*> **edireiten dena** (Ax 199)
- (21) **Aingiruak**, *lainkoaren aitzinean zaudetenak* (Ax 357)
- (22) **haurrek**, *bathaiatu gabe hiltzen direnek* (Ax 371)

Orpustanek ere aldarrikatzen du aposizioa, nahiz kontuz ibiltzeko aholkatu (1997, 83-85):

La relative détachée ou apposée a la même fonction que ce qu'on nomme habituellement "apposition": ... / Analysée comme appositive ou détachée, la relative basque se met, comme en français cette fois, après "l'antécédent" et se marque par plusieurs procédés, ... / ... elle peut répéter la marque de déclinaison de l'antécédant, ici le "défini" -a du nominatif singulier: *liburu hori ttipia, liburutegiko berinaldean ezarria zena* / ... / Dans le cas de relatives très longues et de phrases complexes la postposition des relatives sous l'une des formes précédentes peut se révéler, au prix parfois d'un petit écart grammatical, nécessaire à la clarté du discours et utile pour la qualité du style. / ... / ..., il faut noter seulement que la transformation grammaticale apportée en basque en changeant ainsi le type de la relative ne peut se justifier que pour de raisons stylistiques sérieuses, et que cette transformation est une faute dans tous les autres cas.

Euskaltzaindiko txostenak garrantzia aitortzen die (1999, 213): «Garrantzia handia dute gisa horretako aposizioko perpaus erlatiboek, euskaran maiz eta maiz erabiltzen baitituzte idazleek», nahiz gero ez dituen aztertuko erlatibo librean ataltxo bezala baino orrialde eskas batzuetan (2.2.14.), eta aipatu ere ez dituen egingo *Perpaus erlatiboetan diren mota desberdinak* aipatzean 2.1.2. atalean, ZEIN eta BAIT- erlatibo posposatuaren ondoan.

Agirre 1991k ere jasotzen ditu bere deskribapenetan *-(e)n...* erlatibo aposatu sailak, nahiz atal nahasietan (671-674; 1022-1024), Jon Etxaideren segidako esaldi gogoangarriaren antzekoak:

- (23) **Lehendabiziko gudaldia parte hartu zuena** Talaverakoa izan zen

Biguri 1994k ere aipatzen ditu (62-63), nahiz zalantzak agertu hauen erabilera zuzenaren inguruan. King 1994k ere (403), non gomendatzen zaion ikasleari forma ez erabiltzeko. Zubiri 1995ek ere bai (676), irakurlea ohartaraziz «ez denez komeni egitura neurritz gain erabiltzea». Zubizarreta (eta beste) 1998k ere dio (175) «aposizioa ahozkoan dexente erabili arren, idatzizkoan saihestea hobe [dela], perpaus oso luzea ez bada». Zorionez hasi dira halako erlatiboak gramatika eskuliburuetan azaltzen gaitzespenik gabe ere (Alberdi 1996, 213).

## 1.1. -(e)n... erlatibo aposatuen gaitzespena euskal gramatikan

Azkuek irekitzen dio bidea erlatiboan gaitzespenari (Hidalgo 2002), eta Altubek jarriko ditu hiltzorian (1919, 50-54): «Las oraciones subordinadas de esta clase deben terminar siempre en euskera con su flexión verbal, seguida del relativo *N*, á la inversa de lo que sucede en español, ...». 1929ko *Erderismos*-en errepikatuko du gaitzespena (114-119), espainola eta euskararen arteko kontrakotasuna azpimarratuz. *Correcciones* sailean emango ditu *construcciones defectuosas* bezala edo, zuzendu beharreko adibideak, nola segidakoa (24a), bertan zuzendua (b) (157):

(24) a. (Ez ete dago guztiontzat) **legebardiña, zer dan ona ta zer eztan esaten dauskuna?**

b. (Ez ete dago guztiontzat) **zer dan ona ta zer eztan esaten dauskun legebardiñik?**

Azkue-Altuberen eskolaren eragina XX. mende osoan erraz antzematen da Arejitaren *Euskal Joskera* bezalako lanetan (1985, 124):

Euskal joskera guztiaren oiñarrian daukaguz izenlagun-esaldiak: euskal joskeraren eredu ditugula esan leiteke: *menperatua aurretik* eta *menperatzaillea ostetik* erabili oi dabe beti, *morfema ezaugarria menperatuaren akabuan doala*. / ... / Aldatu ezina da joskera hori.

Eta erlatiboak aldarrikatzen direlarik joskera anti-erderistaren eredu behinen, nola onartu aposizioak? Arejitak aipatzen ditu izen ardatz soil determinatugabeen ondoko erlatiboak (125) eta aitortzen die literatur baliorik, baina erdararen eraginpekotzat joko ditu eta baztergarritzat euskal joskera jatorrean. Atal amaierako, *zuzendu okerrak* ariketan (132) 7 esaldi akastunetatik hiru izango dira izen ardatz determinatugabeen ondoko erlatibo, eta lau izen ardatz determinatuen ondoko aposizio (Añibarren esaldi bat barne). Segidakook:

(25) **Horreik liburuok, atzo itxi neutsuzanak**, itzuli egin bear deustazuz atzera.

(26) Ez dakizu **a mutilla, atzo ikusi genduna?** Il egin da iztripu baten.

(27) **Atzoko ardaoak, edateko emon neutsunak**, ez eukan honen besteko indarrak.

(28) **beste makiña bat gauza, ixillik igaro, estaldu, ta gorde bear zirianak**, zabaltzeak ... (Añibarro)<sup>7</sup>

XX. mendean euskal gramatika ikasi duen orok ikasi du halako “akatsen zuzentzen”, tradizioaren mesprezuan. Eta ez bakarrik hegoaldean. Oraintsu erakusten zigun Xarritonek Lafittek erabili ohi zuen esaldi bikotea bere ikasleei euskara / erdararen ordenamendu “oposaketa erabatekoa” azpimarratzeko:

(29) a. Le<sub>1</sub> bon<sub>2</sub>heur<sub>3</sub> est<sub>4</sub> **la<sub>5</sub> seule<sub>6</sub> chose<sub>7</sub> qu'<sub>8</sub>on<sub>9</sub> puisse<sub>10</sub> donner<sub>11</sub> sans<sub>12</sub> l'avoir<sub>13</sub>**

b. **Ukan<sub>13</sub> gabe<sub>12</sub> eman<sub>11</sub> ahal<sub>10</sub> daiteke<sub>9</sub>en<sub>8</sub> gauza<sub>7</sub> bakarr<sub>6</sub>a<sub>5</sub>** da<sub>4</sub> zori<sub>3</sub>on<sub>2</sub>a<sub>1</sub>.

Adibidea ez da bakarrik erlatiboan arteko oposaketaren adierazgarri, baina hauen oposaketa izan da euskara eta erdararen “erabateko oposaketaren” eredia. Hala zioen Txillardegik ere (1978, 134):

7. Altubek ere bazioen Añibarren joskeraren gainean (1929, 157): «Añibarro, ... su obra *Lore-Sorta Espirituala*, plagada de los solecismos más garrafales entre los cometidos por escritores euskaldunes.»

Erlatibozko perpausetan ageri da ongienik euskal eta erdal joskeren aurkaritza osoa: / *arratsalde*<sub>1</sub>*an*<sub>2</sub> *ikus*<sub>3</sub> *duzu*<sub>4</sub>*n*<sub>5</sub> *emakume*<sub>6</sub>*a*<sub>7</sub> / *la*<sub>7</sub> *mujer*<sub>6</sub> *que*<sub>5</sub> *has*<sub>4</sub> *visto*<sub>3</sub> *por*<sub>2</sub> *la*<sub>2</sub> *tarde*<sub>1</sub> / Joskeraren itzuli-behar guztizko hau dela bide, zail gertatu ohi zaie euskaldun-berriei eta euskaraz ongi ez dakitenei joskera berezi hori.

Halako ikuspegien aurrean ez da erraza ausartzen erdaren ordena bertsuagoa erakusten duten erlatibo arrunten defendatzen.

## 1.2. **-(e)n... erlatibo aposatuen testigantzak leku eta autore desberdinen deskribapenetan**

Hala ere, *-(e)n...* erlatibo aposatuen erabilera ugaria azpimarratzen dute, begi-belarriak zabalik, leku eta autore desberdinen euskara deskribatzen saiatu diren guztiek. Batzuetan lotsaz, esaldi mota hau erdararen eragin pekoa ote den beldur.

### 1.2.1. *Mendebaldeko testigantzak*

*Bizkaiko joskera* deskribatuz aurkezten dituzte erlatibook (*egitura banatukoak*) Arejita (ik. 1.1.), Etxebarria eta bestek, erlatibo arrunten aldean (*egitura lotukoak*) (1989, 87): «Era bitara agertzen dira / EGITURA LOTUAN: / ... / EGITURA BANATUAN: (aposizioan)

(30) **Jatekoak**, *hor zerean dagozanak*, ...

(31) **Hareek jatekoak**, *zerean dagozanak*, ...

(32) **Maisu barria** da, *Gasteiztik etorri dana*»

Etxebarriak modu bertsuan aurkezten ditu *egitura banatuko* erlatibook arrunten aldean Zeberioko euskara deskribatzen (1991, 246): «EGITURA BANATUAN: (APOSIZIOAN)

(33) ... ori, **Patxin semea** dosu, *serean bixi dana*, *Elexondora eskondu sana*, bai, *amaka semalaba dituena*, *eta oindo atxine estala etze barrie iten asi dana*»

Bizkaiko hainbat bazterretako deskribapenak egin dituen Gamindek ere, maiz jasotzen ditu *-(e)n...* erlatibo aposatuak arrunten alboan, gehienez aipamen bereziririk gabe. Hala dio Leioako euskara deskribatzen (1989, 179-182): «Edo aposizio gisa beste lekuren batetan deklinabidearen kasu marka txertatzaileari deusela, adibidez:

(34) **Miren sure** *amas berba iyena* Bermeoko da

(35) estot esetan **ori enbre etor sarena**

(36) **ori gisona** *berbas egon sarena* makal dabil

(37) **a taberne** isi deude *a edan gendune*

(38) kendu in deue **taberne aiteas eon gintzena**»<sup>8</sup>

Foruko euskararen deskribapenean dio (1989, 151-3): «Edo, aposizio gisa, adibidez:

---

8. Gaminderen esaldi hauetako asko lortu bide dira lekukoari gaztelerazko esaldia eman eta itzulpena eskatuta. Horrek areagotu egin lezake aposizioak aurkitzeko aukera, eta beharbada estatistika desitxuratu, baina ez besterik.

(39) gusta dxat **a lekue elixie egon dana**

(40) esetuten dot **a neskie esnie gustaten dxakona»**

1990ean aurkezten ditu segidako egiturak Bilboko euskaldunen mintzotik (1990, 149-153):

(41) **Au gixon au etorri dana** kanpoko da

(42) batu ditxues **sagar danak eon diesanak yausite**

(43) bota deure **egurre erreta eon dana**

(44) **ori libru ori erosi dosune** motza da

(45) **neskatoak in tzunek berba suri** esteust esetuten [komunztadura arazo eta guzti; ik. 4.9.3]

(46) **andra bat** egon sen “i” iten **seuena**

(47) nik esaututen dot **neskato bat esnie gustaten datziona**

(48) esetuten dot **neskie gustaten dxakona esnie**

(49) **ori neskato ori etor sarana** gaixorik dau

(50) **gixona, berba ein dosune**, emen estau

(51) emekoa esta **ori gixon ori berba in dosune**

(52) itxi deure **tabernie aittegas egon garesena**

Burgetek eta Gamindek erakusten dituzte segidakoak Otxandioko euskarari (1991, 165):

(53) sarratu daure **tabernie aitteas egon giñena**

(54) **sillie dxarrite egon nasena** apurtute dau

Antzera Markaida eta Gamindek Sopolako euskara deskribatzen (1993, 106-9):

(55) ernari dau **ori beye ume itxeko daune**, ume ingo dau

(56) **orrek baskari in deuenak** eneu esetuten

(57) etor da **enbra bat euskeras dakiñe**

(58) **ori akordaten nasena**, il da

(59) ixi deude **a, taberne, a edan gendune**

(60) ego nas, **señeas baya, ikusi saixuneas**

(61) **ori etor dan gixona** kanpoko da [izen ardatza erlatiboaren aurretik eta ondotik errepikatuz; ik. 4.8. atala]

Baita ere Gatican erabiliak (Gaminde, 1997, 118-120):

(62) **Ori gixona etor dana** kanpoko da

(63) Emon dotzet diru a, **orri andreri etzera etor danari**

(64) Estot esetuten **ori sues berba in daune**

(65) **Maye yan dune** apurtute dau



- (66) Ixi deude **taberne**, *ori edan gendune*  
 (67) **Sillea yarri sarana** apurtute dau  
 (68) Saldu in gure dere **etzea**, *oin ixen garana*  
 (69) Ayuntaminttune da **ori barra, yon garana**

Bi adibidetan izen ardatzaren errepika erakusten da erlatiboaren aurre eta atzean (ik. 4.8.):

- (70) Emon dotzet yaten **txakurreri ekar dosun txakurreri**  
 (71) Nik emen ortxe **mendiñ**, *kastillo daon mendiñ* esetu dot

Arretzek ere Basauriko euskara deskribatzen (1994, 209): «Egitura banatuan: Aposizioan

- (72) **Ausoko batzu** pe bai, *txarriye eusten e dabixenak*  
 (73) **Gixon bat e ... edan eiten dauena**  
 (74) Ori da **aratx bat a basotan daoena**»

Erraztik ere bai lurretako hizkeran, erlatibo arruntak azaldu ondoren (1994, 121):

- (75) **mutilleri, etorri danari**, loteriye urteutzo  
 (76) **giltze, galdustesune**, albokuek topeu dau atartien

Aranberrik ere bai Ermua eta Eitzako euskaran (1995, 129): «APOSIZIOAK:

- (77) **A mutikua**, *baloia emon dotzatena*, antxintxiketan fan dok plasara  
 (78) **Esnia, ekarri ebana**, beruagaitxik alperrik galdu da  
 (79) **Atxurra**, *ortuan laga ebana*, Iñakik artu dau  
 (80) **Aren semia**, *Ameriketan eondakua*, eskondu suan Urkora» [aditz jokatu gabe bidezkoa]

Gamindek erakusten ditu segidakoak ere Bakioko euskaratik (1999, 276):

- (81) txarridxe da **gauxerik munduen dauenik** onena  
 (82) len **amen kuartue dauen lekuen** ba sera, bodegie egon san  
 (83) afrontue da **paraje bat aixiek sarri dxoten deuen** edo *golpiek antxe dxoten deuen* *beti*  
 (84) **artoak Bakidxon dausenak** a, asto batek dxango leukes

### 1.2.2. Ekialdeagoko testigantzak

Agirretzek (eta bestek) ere erakusten ditu halako erlatiboak *Pasaiako hizkeran*, Iparraldeko Goi-Nafarrera eta Gipuzkeraren arteko mugan (1998, 147-148): «Aposizioan / Euskaraz erlatiboak eraikitze ohiko egitura arestian aipatutakoa bada ere, Pasai Donibanen erlatiboa determinatzailearen ondoren jartzeko joera handia dago.

(85) Oso txikiya san **lembisiko baporía genuna**, oso txikiya san

(86) **Jaio nitzan basarriyan**, *Arrokaundieta deitzen dana*

(87) Emen esan itxeik, Meipin itxi oi bakarrik, **Meipiko itxi aundiyoí**, *suek bisi seatena* ero

(88) Gu gaude hemen **Sanjuanguak**(,) **irabasitakuak** *lau bandera kontxakuak*» [aditz jokatugabe bidezkoa]

Agirretxe eta Esnaolak ere bai inguru bereko *Lezoko euskararen azterketan* (2001, 134):

(89) Eta **bandera republikanua**, *garayartan tzena*, jarri san beroxio

(90) **Neska bat bakarra** isango sen **eman etzuna** *deuses*

(91) **Meikuak oañarte isauttutenak**, ...

Hala Frailek ere *Oiartzungo hizkeran* (Goinafarrera), aposizioen balizko jatorri arrotza salatuz (1996, 131): «APOSIZIOAN / Perpaus erlatiboa determinatzailearen aurretik jarri beharrean, kasu asko eta askotan ageri zaigu Oiartzungo hizkeran. Beraz ugariak ditugu gaztelaren kutsua nabarmen gertatzen den gisa honetako esaldiak:

(92) aentxe **gizonak gosian**, *hogeí urte ta geyon zaudenak*

(93) **Emakumia**, *kontinuo eaten dunak* [komunztadura arazo eta guzti; ik. 4.9.3.]

(94) oañ **maestrak eta**, ..., **zuek or zailztaten oik**, ... [ik. 4.8. izen ardatzen errepikatzeaz]

(95) Bai, **abarkak**, *zea lotutzen dinak*

(96) ... **beste gauz bat**, *zuek eztikizutena*

(97) izaten dia **baldiak erdoitzen dinak**

(98) uaiñ baldim bado **pertsona bat euskeraz dakiyena**»

Ultzamako hizkera deskribatzen Ibarrek ere aipatzen ditu aposiziook, hauei gaztelaniaren eragina atxiki nahiz (1995, 520): «Besteetan gaztelaniaren eragina nabaritzen da; alegia, perpaus erlatiboa, determinatzen duen elementuaren aurretik kokatu beharrean, atzean kokatzen da, gaztelaniaz bezala. Izan ere, erromantzeetan aurretikoa dena, atzetikoa gertatzen da euskal joskeran. EAEL-ko adibide hauetan ikus daitekeenez:

(99) Puskatu **egurre bildu duztena**

(100) Xetu **egurre bildu duztena**»

Erroibar eta Esteribarko euskarak aztertzean ere bai, orduan gaztelaniaren aipamenik gabe (2000, 213; lehen adibidea Lizarraga Elkanokoarena):

(101) **Parrócoa assistitubearduena** dá testigobát autorizátua ...

(102) etxe guziétan bazen **norbait** o **máztia** o **gizona artzen zuztenak** *beren úmiak erlúmiak eta* (Lin)

(103) au da **Mudanza penitencia eguiacoatec escatcen duena** (Erro)

(104) **gaztiak** or **zeiltzenak** (Lin)

(105) **mutil zarrak etzirenak esposatu sekule** (Lin)

(106) ori de **afera mugitu dena**, *berritik* (Us)

(107) oek tire **lau etxeak emen direnak** (Us)

Caminok ere erakusten ditu erlatibok aezkeraren deskribapenean (1997, 476):

(108) Ba, alta badira Aúritzen ere **bakan zenbeit**, ona, **badakitena euskara**

(109) **Nor** balimada **dakiena** ('dakien norbait baldin badago')

(110) Ezta **makurrik oni lotzen etzeonik**

N'Diayek ere bai Maiako hizkeran (1970, 215): «apposition:

(111) **erri ttar bat Bozate duena izena** (un petit village quis'appelle Bozate)

(112) **denak sukeldean zaudenak** (tous ceux qui étaient dans la cuisine)»

### 1.2.3. EAELeko testigantza

1983an argitaratu zen *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*-ren lehen atalaren lehen zatia. 266, 267 eta 268 galderetan erlatiboko esaldiak itzultzeko eskatzen zaie lekukoei (*L'homme qui est venu hier était malade / Cassez le bois que vous avez ramassé / L'homme avec lequel j'ai parlé n'est pas grand comme ton fils*) frantsesetik edo gazteleniatik. Lehena lekuko bakarrak ematen du aposizioz (Arabako Muruakoak) (ik. F. Leizaola 1983-):

(113) **atzoko gisona etor sana** gesorik egon da

Beste bakarra izen ardatz determinatugabearen ondoretik eta 77 erlatibo arrunt. Bigarren esaldia, berriz, 68 lekukok ematen dute erlatibo arruntez eta 10ek aposizioz (%12,8):

(114) txikertu **egurre seuek batu dosuena** (Mungia, Bizk.)

(115) ebagi **egurra batu dosuena** (Zamudio, Bizk.)

(116) **egurra bildu zuena** hauts zazue (Ziburu, Lap.)

(117) pikatu **egurra bildu duziena** (Abaurregaina, Naf. Gar.)

(118) **eurra autsi duna** zértako bildúzute (??) (Goizueta, Naf. Gar.)

(119) puskatu **egúrre bildu duztena** (Urrizola, Naf. Gar.)

(120) aútsi zazié **egúrre zuék bíldu ziéna** (Usi, Naf. Gar.)

(121) píka zazéi **égurra, égun bíltu zéina** (Uztarroitze, Naf. Gar.)

(122) xetu **egurre bildu duziena** (Xuarbe, Naf. Gar.)

(123) **eurrek autsi karri duziena** (Ziganda, Naf. Gar.) [komunztadura arazo eta guzti; ik. 4.9.3.]

Hirugarren esaldia 70 hiztunek ematen du erlatibo arruntez, Zuberoko 2 hiztunek *zuiñ / zuiñ* izenordeen bidez, eta 3 hiztunek *-(e)n...* erlatibo aposatuz. Segidako esaldiak:

(124) **gixonagas berba iñdotena** esta altue sure semealasekoa (Mungia, Bizk.)  
[komunztadura arazo eta guzti]

(125) **gizon orrekin berba einduana** ezta luziau zure semia baño (Arrasate, Gip.)  
[komunztadura arazo eta guzti]

(126) **gizóna neréki itzéin duéna** ézta zure sémia bezin áltoa (Usi, Naf. Gar.)

#### 1.2.4. Autore zaharren testigantzak

Egituraren ugariak entzungarri da Aranburuk (eta bestek) esana Gerrikoren inguru (1995, 136): «Dena den, lehentxoago aipatu dugun legez, erlatibozko perpaus gehienak posposizio eran egituratzen ditu, hots, erreferentziazko hitzaren atzetik, autore zahar guztiek bezalaxe:

(127) **Sabore, edo gustoac, aibeste pecatu munduan eraguin cituenac** Infernuan gose egarri amorratuac beti sufritu bearco ditu. **Tactoac edo uquitzeac, emen bigun zale izan zanac**, infernuan beti egongo da.»<sup>9</sup>

Autore berek aztertzen dituzte J.F. Amundarain zegamarraren idatziak eta esaten (1998, 180): «Erlatibozko perpaus txertatua, postposizio gisa, izenburuaren atzean: ... Erlatibozko perpausak eratzeko modu txit arrunta, gure klasikoen artean, eta egun ere; gogoratu bestela, Aita Gurea, zeruetan zaudena.

(128) sufrituzazu **arcacusoen ozcada chiquia, loricán eguiten uzten ez dizuna**

(129) Contricioa da **damutasun bat datorquiguna Jaungoicoa ofenditu degulazcora**

(130) au da **humiltasun eguiazcoa eta beragabe salvatceric eztagoana** [izenorde erresunptibo eta guzti]

(131) izanic **zan becelaco Profeta guciai erabat garaitu ciztena**

(132) ¿Cerc convertitu zuan **lapur ona, gurutcetic cincilica Jesus Nazarenoaren aldamenean cegoana?**

(133) ... **Eliz Ministroac, Christau fiel gucien salvacioraco ifiniac daudenac**»

Villasantek antzera dio Lapeyreren prosaz (1982, 20-1): «-n atzizkiaz moldatuetan maiz ezartzen dio artikulua -n honi eta era horretara «antecedente» deitzen denaren ondotik botatzen du erlatibozko esaldia. Beti ez du hola jokutzen, noski, baina bai sarri. *Itzalik ez duen egia*, esan beharrean, alegia, *egia, itzalik ez duena*, esango du, ... / Hona hemen beste adibide batzuk:

(134) Huna, **ifernuko sofrikario bat, errexkiago konprenituko duguna**

(135) Hau da **su bat bethi erretzen, eta bethi bizi uzten duena**

(136) **Boza bat, irakasten eta erraiten diona ...**»

## 2. -(e)n... erlatibo aposatuen maiztasuna euskaraz


Aipamen eta maiztasun aitortzon bistara, erlatibo aposatuek merezi dute azterketa sakona. Beren pisua zehazteko, eta erabilera ezaugarriak finkatzeko erlatibo arrunten aldean. Erlatiboan pisua neurtzeko, erlatibo hautsiei buruzko

9. Bada azken esaldi honetan ere komunztadura arazo bat. Ik. 4.9.3. atala.

azterketan erabili corpusa berak erabili ditut (Hidalgo 2002; 1999c; 1994a). Bata, 1994ko corpusa, ahozkoa bere 3/4etan, eta beste laurdena osatua Axular, J.A. Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepareren testuez. Bigarren corpusa Medikantzakoa, M. Aranburu eta M. Bago Agirre mediku jaunen 1899ko *Osasun Legeak eta Medikantzako Argibideak* liburuxka.

1994ko corpusean 140 dira *-(e)n...* erlatibo aposatu osagarridun eta osagarrigabeak. Medikantzan, berriz, 100 baino ez. Aposizioon pisu erlatiboa neurtzeko erreferentziatzat hartuko ditugu, modu arruntean izen ardatzaren ezkerretik abiatzen diren erlatiboak. 1994ko corpusean 652, Medikantzan 971. Denera 1.623 erlatibo arrunt.<sup>10</sup> Hauen aldean *-(e)n...* erlatibo aposatuak %17,7 dira 1994ko corpusean, eta %9,3 Medikantzakoan.<sup>11</sup> Denera 242 *-(e)n...* erlatibo aposatu, guztien %12,9 (artikulu honen eranskinean ikusi litezke guztiak). Bere garrantzia, beraz, badute erlatibook, baina garrantzi erlatiboa ere bai. Datuak segidako grafiko eta taulan:

***-(e)n...* erlatibo aposatuak eta erlatibo arruntak**




	1994		Medikantza		2 corpusak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>-(e)n... apo.</i>	140	17,7	100	9,3	240	12,9
Erl. arruntak	652	82,3	971	90,7	1.623	87,1
<b>Denera</b>	<b>792</b>	<b>100%</b>	<b>1.071</b>	<b>100%</b>	<b>1.863</b>	<b>100%</b>

## 2.1. *-(e)n...* erlatibo aposatuak osagaika

Aposiziook nabarmen ugartzen dira esaldi osagarrien oparotasunarekin:

**Erlatibo arruntak eta *-(e)n...* aposizioak osagaika 1994ko corpusean**




10. Zeinen artean 308 batere osagarririk gabeak, aditz soilez osatuak. 1.315 osagarridunen artean, berriz, 105, erlatibo hautsi ziren, osagarridunen arteko %8,0 (Hidalgo, 2002).

11. Bi corpusen arteko desberdintasun honen zergatiaz hitz egingo dut ZEIN erlatiboak aztertu ondoren, izen ardatz determinatuari aposatutako bi erlatibo mota hauen artean distribuzio osagarria aurkituko baitugu corpusean.

1994	Denera		Erl. arruntak		-(e)n... aposizio	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0 osagarri	153	19,3	140	91,5	13	8,5
Osagarri 1	330	41,7	279	84,5	51	15,5
2 osagarri	167	21,1	137	82,0	30	18,0
3 osagarri	66	8,1	53	80,3	13	19,7
4 osagarri	32	4,3	17	53,1	15	46,9
5 (edo +)	44	5,6	26	59,1	18	40,9
<b>Denera:</b>	792	100%	652	82,3	140	17,7

Ikusi liteke, 4 eta 5 edo osagarri gehiagoko erlatiboen artean, %40 baino gehiago direla aposatuak emaniko erlatiboak, nahiz erlatibo luze hauek ez izan ugariak (guztien %10 inguru).


#### Erlatibo arruntak eta -(e)n... aposizioak osagaika Medikantzan



Medik.	Denera		Erl. arruntak		-(e)n... aposizio	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0 osagarri	170	15,9	168	98,8	2	1,2
Osagarri 1	320	29,9	306	95,6	14	4,4
2 osagarri	305	28,5	281	92,1	24	7,9
3 osagarri	98	9,2	81	82,7	17	17,3
4 osagarri	52	4,9	41	78,8	11	21,2
5 (edo +)	126	11,8	94	74,6	32	25,4
<b>Denera:</b>	1.071	100%	971	90,7	100	9,3

Medikantzan ere erlatibo apostuok erruz ugaritzen dira esaldiak osagarriak irabazi bezala, nahiz esaldi luzeenetan ere artean guztien 4tik bat baino ez izan (ik. 11. oharra).

#### Erlatibo arruntak eta -(e)n... aposizioak osagaika 2 corpusean artean



2 corpus	Denera		Erl. arruntak		-(e)n... aposizio	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0 osagarri	323	17,3	308	95,4	15	4,6
0sagarri 1	650	34,9	585	90,0	65	10,0
2 osagarri	472	25,3	418	88,6	54	11,4
3 osagarri	164	8,8	134	81,7	30	18,3
4 osagarri	84	4,5	58	69,0	26	31,0
5 (edo +)	170	9,1	120	70,6	50	29,4
<b>Denera:</b>	1.863	<b>100%</b>	1.623	<b>87,1</b>	240	<b>12,9</b>

Osagarririk gabeko esaldien artean, batez beste %4,6 dira -(e)n... erlatibo aposatuak. Proportzioa %31,0 eta %29,4ra igotzen da 4 eta 5 edo osagarri gehiagoko esaldietan.

## 2.2. Erlatibo hautsi eta hautsigabeak -(e)n... erlatibo aposatuen artean

-(e)n... erlatibo aposatuen artean gehiengo dira aditza erlatibozko esaldiaren amaieran erakusten duten egiturak, baina ez inola ere baztergarriak artean osagarriak erakusten dituztenak aditzaren eta -(e)n... nominalizazioen ondoretik. 10etik 3 (5 esalditik 1 1994ko corpusean; 5etik 2 Medikantzan). Segidako taula eta grafikoetan ikusi litekeen bezala:

**Esaldi hautsiak eta hautsigabeak -(e)n... erlatibo aposatuen artean**




	1994		Medikantza		2 corpusak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagarridunak:	127	100%	98	100%	225	100%
Hautsigabeak:	99	78,0	60	61,2	159	70,7
Hautsiak:	28	22,0	38	38,8	66	29,3

### 2.2.1. Erlatibo hautsiak eta hautsigabeak esaldien luzeraren arabera

Pentsatzekoa zen bezala, esaldi hautsien proportzioa nabarmen hazten da hauen luzerarekin bat (5 esalditik ia 3 hautsi, 5 edo osagarri gehiagokoen artean, 1994ko corpusean; 5etik ia 4 Medikantzan). Oso laburren artean ere beti da hautsien proportzio esanguratsu bat (%6,2):


Erlatibo hautsi / hautsigabeak osagaika -(e)n... aposizioen artean 1994ko corpusean



1994ko corpusa

	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Konp. 1	51	40,2	48	94,1	3	5,9
2 konp.	30	23,6	24	80,0	6	20,0
3 konp.	13	10,2	10	76,9	3	23,1
4 konp.	15	11,8	9	60,0	6	40,0
5 (edo +)	18	14,2	8	44,4	10	55,6
<b>Denera:</b>	<b>127</b>	<b>100%</b>	<b>99</b>	<b>78,0</b>	<b>28</b>	<b>22,0</b>


Erlatibo hautsi / hautsigabeak osagaika -(e)n... aposizioen artean Medikantzan



Medikantza

	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Konp. 1	14	14,3	13	92,9	1	7,1
2 konp.	24	24,5	20	83,3	4	16,7
3 konp.	17	17,3	13	76,5	4	23,5
4 konp.	11	11,2	7	63,6	4	36,4
5 (edo +)	32	32,7	7	21,9	25	78,1
<b>Denera:</b>	<b>98</b>	<b>100%</b>	<b>60</b>	<b>61,2</b>	<b>38</b>	<b>38,8</b>

Erlatibo hautsi / hautsigabeak osagaika -(e)n... aposizioen artean bi corpusen artean





## 2 corpusen artekoa

	Denera		Hautsigabeak		Hautsiak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
<b>Konp. 1</b>	65	<b>28,9</b>	61	<b>93,8</b>	4	<b>6,2</b>
<b>2 konp.</b>	54	<b>24,0</b>	44	<b>81,5</b>	10	<b>18,5</b>
<b>3 konp.</b>	30	<b>13,3</b>	23	<b>76,7</b>	7	<b>23,3</b>
<b>4 konp.</b>	26	<b>11,6</b>	16	<b>61,5</b>	10	<b>38,5</b>
<b>5 (edo +)</b>	50	<b>22,2</b>	15	<b>30,0</b>	35	<b>70,0</b>
<b>Denera:</b>	225	<b>100%</b>	159	<b>70,7</b>	66	<b>29,3</b>

Kurioski, *-(e)n...* erlatibo aposatuen arteko hautsien proportzioa (%29,3) nahikoa altuagoa da gure bi corpusetan erlatibo libre soilen artekoa baino (%19,2; Hidalgo 2002). Segidan zenbait adibide erakusgarri (beste ugari asko lan honen adibidetegi zabalean barreiatuta):

- (137) Baiña saati entzu'benin **elixurreko lagunak**, *buelta bat emo'benak bakarrik etxea jun'tziñ billurtute.* (Gor, 101)
- (138) Sasô baten bisi xan **baserritar bat** Lekitxo onduan **es eukana** *eseren ikararik, ...* (Gor, 108)
- (139) ..., bezia, **Martin Saardi**, Saline Saardinin sortuia, banan herrumes hutsa, eaten, eta *Zokhoteeirat biltzen zena batzuietan.* (Duh, 126)
- (140) Kirolaren munduan badago **halako literatura bat ez zaidana** *batere gustatzen.* (P. Perurena, *EEg*, 1995-VIII-6, 40)
- (141) Orain nahiko ondo nabil, baina izan dira **urte batzuk igaro ditudanak** *tokatzen ez zaidan lana egiten, ate guztiak zabaltzen ...* (Y. Arrieta, «Kate motzean», *EEg*, 1997-VII-13, azken orria)
- (142) Bazen **bat** lanbide heziketan irakasle zena eta **bazekiena** *kit batekin nola montatu irratia.* (J. Otamendi, *EEg*, 1997, VIII, 17, 32)
- (143) Ezagutzen dut **gizon bat** *kale-kantoiari jarrita ipuin harrigarriak kontatzen dituen txanpon baten truke.* (Alaitz eta Mainer-ren kanta)
- (144) Bein bere **unideac, zeramánac** *besotán*, utzizué Ama Virginaren Eliza-atárian, ... (J. Lizarraga, 381)
- (145) ..., bazkari edo aphairu on bat eman nahi duenak, behar ditu egin arazi **anhitz jateko suerte**, gustu bera izanen ez dutenak; bainan **direnak izanen** *batzu eztiak, bertzeak biziak, ...* (Eliz, 1889, 1)
- (146) Ez da bethi, ez eta nihoiz, orok badakigu, **aberatstasuna berekin dakharkeena** *gizonari zorion egiazkoa.* (Eliz, 1889, 2)
- (147) ..., eta haren gainean **oilategia**, *orduan bethi ongi poblatua zena, xitoz, oilaskoz, oilandaz, ...* (Eliz, 1889, 8)
- (148) Gaztigu horietarik badire **hirur, iduri dutenak** *bertzeren orozgaineakoak, ...* (Eliz, 1890, 37)
- (149) ..., jakin zutenean bazela **gizon bat, mariñel bat**, *herriz herri, gortez, gorte zabilana, laguntza bila, itsaso horren bertze aldera joaiteko, urez.* (HU, 1971, 50)

- (150) Hitza zen **argia**, mundura **datorrena**, gizon-emakume guztiak argitzera. (*Elizen arteko Biblia*, ap. Senez, 7, 1988, 48)
- (151) ..., beste eredu bat sortu zen, **lapurtar-baxenabarrerarena**, osoki biribildua **izan zena** mende honen lehen partean. (B. Oihartzabal, *Jakin*, 76, 1993, 82)
- (152) Sansebastianak benetan **fiesta zaharrak** direlako, eta *sustrai handiak* **dauzkanak** Donostian. (R. Labaien, *EEg*, 1995-VIII-13, 24) [esaldiaren komunztadura arazo eta guzti; ik. 4.9.3. atala]
- (153) Pieza bateko euskotarrak dire **horiek**, *aspalditik ahanzia* **dutenak aiten-aitek** *naparrak ziren edo giputzak*. (R. Labaien, *EEg*, 1995-XI-11, 3)
- (154) Huna **gizon bat jakin duena** mugimendua altxatzen eta denbora berean hasierako helburuei tinki jarraitzen, ... (J. Sarrailet, *Argia*, 1996-I-14, 11)
- (155) Badaude **pertsona batzuk**, *batzuetan tentsio-maila altuak* **erakusten dizkietenak** *medikuari*, eta beste batzuetan normala dutenak: ... (*Eroski*, 203, Ots.-96, 12)

Ziur aplika dakieke erlatibo aposatuoi Euskaltzaindiak esaten duen hura erlatibo librean inguru (1999, 209): «barneko osagaiak aditzaren eta artikularen eskuinean ager daitezke».

### 3. -(e)n... erlatibo aposatuen balioaz erlatibo arrunten aldean

Euskaltzaindia 1999k ere aitortzen du (200-201) euskarazko erlatibo arruntak zeinahi izen ardatzen laguntzan azaldu litezkeela, murriztu zein ez-murriztu, mugatu zein ez-mugatu. Aurretik ere testigantza batek baino gehiagok aitortu du euskaraz ez dela desberdintasun estrukturalik, beste zenbait hizkuntzatan bai bezala, erlatibo murrizgarri eta ez-murrizgarrien artean. Hala De Rijkek (1972, 156): «No structural differences could be found between restrictive and non-restrictive (appositive) relative clauses»; aurretik (150-156) hainbat adibide argigarri eman ondoren izen ardatzaren ezkerretik emaniko euskarazko erlatibo ez-murrizgarrienak. Oihartzabalek ere antzeko ikuspegia erakusten du, zentzuga-bekotzat joz erlatibo murrizgarri eta ez-murrizgarrien arteko eztabaida lotzea, egin ohi den eran, egitura sintaktiko jakin bati (1985, 13): «Ce débat, qui se centre très souvent autour de la distinction: relatives déterminatives (restrictives) - relatives explicatives (descriptives), doit sans doute être dépassé. Nous verrons en effet que, dans le cas du basque, cette distinction n'a pas lieu d'être reprise dans ces termes». Zorrotz Rebuschik ere Oihartzabalen lanaren sarreran (1985, 9): «... Oyharçabal confirme de façon irréfutable que la distinction classique entre relatives restrictives et non restrictives (ou déterminatives et appositives) n'a aucune raison de s'appliquer au basque: ...». Oihartzabalek aurrerago garatzen du eztabaida (1985, 125-129), eta dio -(e)n... aposatuen inguru (125): «Même l'appositive ne saurait être considérée en fait comme une explicative, puisqu'elle apparaît dans les contextes où la construction canonique est parfaitement possible». J. Garziak ere dio (1997, 374): «Bi erlatibo moten arteko aldea ia erabat ezabatzen da zenbait testuingurutan, euskaraz zein erdaraz (sintagmak artikulua mugatua ez daramanean, bereziki)». Nahiz aurretik nasai asko erabili duen bereizketa semantikoa sintaktikoari lotua. Mujika 1999k eztabaidatu du Garziaren ikuspegia. Euskaltzaindia 1999k ez du bereziki eztabaidatzen -(e)n... aposizioen

balio arazoa, baina zuzen aplikatu dakizkieke ZEIN erlatiboen balioen inguruan esanikoak (235-240).

Erlatibo arrunten kasuan bezalaxe, *-(e)n...* aposizioak murriztaile edo mugatzaile gertatzea ez da erlatibozko esaldien beren ezaugarri, baizik eta izen ardatzarena eta testu-aurrearena. Izen ardatza erlatibozko esaldiaren aurretik nahikoa murriztu eta mugatua bada, zeinahi erlatibo ezin izango da azalpenezkoa baino. Beste kasu guztietan erlatiboak beti lagunduko du izen ardatz hori zehazten, maila handiago edo txikiagoan. Euskaraz, soilik testuinguruak argitu lezake erlatibozko egitura jakin bat murriztailea den edo ez. Ez honen egitura sintaktikoak.<sup>12</sup> Hala aurkitu ditzakegu segidako en antzeko esaldi pareak, testuinguru bere batean balio semantiko berekoak izanen direnak (Euskaltzaindia 1999, 200-201eko adibideetatik abiatuta):<sup>13</sup>

(156) a. *Goizean etxe aurrean zurekin mintzatu den gizonak* (esango zizun hori.)

b. **Gizonak**, *goizean etxe aurrean zurekin mintzatu denak*, (esango zizun hori.)

(157) a. *Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak* (esango dizu hori.)

b. **Maddi nire arrebak**, *aspaldi ezagutzen duzunak*, (esango dizu hori.)

(158) a. (Etorri ziren) *aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk*.

b. (Etorri ziren) **lagun batzuk**, *aspaldi ezagutzen nituenak*.

(159) a. *Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak* (irakurri behar nituzke.)

b. **Euskal liburu zaharrak**, *zuk ongi ezagutzen dituzunak*, (irakurri behar nituzke.)

Beste ikuspegi batetik heldu dakioke kontuari. Eman dezagun, izen ardatz bat, bi erlatibok determinatua (ohiko kasua), bat ezkerretik modu arruntean, bestea eskuinetik aposaturik:

(160) (... konturatuko gera gauza egokia [ohikoa] izango dala ... ez ikustea gure parajeetan ...) *lenago aitortu ditugun gaxo eta gaitz bildurgarri aek jendea bat batera artu eta pillaka illtzen dutenak* (Med., 21-22)

Ze balio dute erlatibook? Aurretikoa murriztaile litzateke. Baina erabat determinatzen al ditu gaitz beldurgarriak, aposaturiko erlatiboaren laguntza gabe? Ez. Eta zer gertatzen da bi erlatiboen ordena aldatuz gero?:

(161) *jendea bat batera artu eta pillaka illtzen duten gaxo eta gaitz bildurgarri aek lenago aitortu ditugunak*

Aurrekoa berriro murriztaile. Baina aposizioak areago murrizten du gaitz beldurgarrien esparrua. Euskal hiztun/idazleak maiz erabiltzen ditu aposizioak, estrategia bezala, erlatiboak ez pilatzeko izen ardatzaren aurrean eta esaldia ez

---

12. Martínez 1985ek dio ere gaztelaniaz (457): «Que una aposición sea o no explicativa depende de que su primer término sea o no un nombre individual, y por tanto de algo marginal a la construcción positiva misma.»

13. Euskaltzaindiaren arabera liriateke: (156a): + mugagarri, + murrizgarri. (157a): - mugagarri, - murrizgarri. (158a): - ez mugagarri, + murrizgarri. Eta (159a) interpretazioen arabera izan litekeena: +/- mugagarri, +/- murrizgarri. Esan bezala, ordea, ezaugarriok ez dira erlatibozko esaldi berarenak, baizik ...

iluntzeko. Eta izen ardatzaren aurre eta ondoko erlatiboak gehienez dira beren artean aldagarri.

Martínezek gaztelera bereizten ditu ohiko erlatibo murriztaile eta aposizio ez-murriztaileez gain, hirugarren mota bateko aposizio murriztaileak, gureen oso antzekoak (1989, 177; ik. ere 1985, 466): *los niños, los que estaban cansados, se durmieron* ["*sólo los cansados*"] itxurazko esaldiak, gaztelaniaren kasuan ezer gutxi aipatuak orain artean.<sup>14</sup> Gure artean Kaltzakorta 1997k jaso du banaketa hori, aposizio murrizgarriak izaki bere ustez *euskaldun guztiok-edo -(e)n...* aposizio bidez eman ohi ditugunak. Eta beti ez bada ere, *-(e)n...* aposizioak maiz dira murrizgarri. Biz adibide segidakoak (determinatzaile-mota desberdinak darabiltzatenak):

(162) ..., orduan ere baziren edo **euskaldun berriak edo garbizaleegiak** *Manezaundi hain atsegin ez zutenak*, ... (R.M. Pagola, in E. Zubiri, 1990, 15)

(163) Baina zer laiteke, **aintzinamendu hori**, *gure etxetik gu kanpo ezartzen gaituena*. (E. Larre, *Herria*, 1995-II-2, 1)

(164) ..., egun guziez ager-arazten **kazeta bat** *La Libre Parole erraiten diotena*, *eta oraino sei hilabete baizik ez duelarik agertzen hasia dela, berrehun mila irakurtzaletaraino badituena*. (HU, 1971, 29)<sup>15</sup>

(165) Oiek dira **bi arrazoi** *Lazkao-Txiki zanari indar berezia ematen ziotenak*. (Las, 52)

(166) ..., badaude **beste bi atal**, *azpimarratutako zailtasuna areagotu besterik egiten ez dutenak*; ... (A. Iturbide, *Jakin*, 64, 1991, 140)

(167) Bazeuden **bi milioi inguru**, Nueva Yorke, *inglesa ez zekitenak* eta katolikoak denak. (J. Mallea, elkarrizketa transkribapena, *EEg*, 1995-IV-14, 32)

Izen ardatzaren ezkerretiko erlatibo arrunt gehienak murrizgarri gertatu ohi diren bezala, eta aldiz, ZEIN erlatibo gehiengo, ez-murriztaile, *-(e)n...* aposizioen artean parekatuago aurkitu litezkeela dirudi egitura murrizgarri eta ez-murrizgarriak (ik. 4.1. eta 4.2.ko adibideak).

#### 4. *-(e)n...* aposizioen erabileraz

Gavelek jorratu bidetik, esango nuke bi ezaugarrik bultzatu ohi dutela hiztuna erlatiboetako esaldia izen ardatz determinatuaren ondoretik ematera. Bat, erlatiboetako egituraren luzera. Bestea, hiztunak bere garunean lehenik izen ardatz hutsa gauzatzea, eta soilik gerora, ardatz determinatua eman edo esan eta gerora ere bai maiz, erabakitzea izen ardatz horrek merezi duela erlatibo baten laguntza (entzuleak entzuketan behar bezala ulertu ez duelako edo bestela). Segidan bildu ditut egituraren erabileraren inguruan esku artean darabildan hainbat erabilera

---

14. Ez dut bereizketa hori ezagutzen beste hizkuntzen gramatiketan ere, baina zenbaitetan duda gabe egin liteke: *The children, the ones who were tired, fell asleep. Les enfants, ceux qui sont fatigués, se sont endormies.*

15. Esaldiko bi aposizioetatik lehena murrizgarri litzateke, eta bigarrena azalpenezkoa edo, ez-murrizgarria. Baina nahikoa da bien ordena aldatzea ezaugarri horiek aldatuak sentitzeko: **kazeta bat oraino sei hilabete baizik ez duelarik agertzen hasia dela, berrehun mila irakurtzaletaraino badituena eta La Libre Parole erraiten diotena.**

adibide, gaia agortzeko beldurrik gabe. Aposizioon erabilerak merezi du azterketa sakon eta sistematikoagoa, propaganda zabalagoa ere merezi duten bezala dagoeneko euskal gramatikaren zabalpenerako lanetan.

#### 4.1. Erlatibozko esaldi labur askoak ere bai aposizioan

Estatistikak erakutsi bezala (2.1.), egiturek ugariagoak dira esaldi luzeetan, baina badira laburretan ere —maizago seguru asko ahozko hizkeran idatzian baino—. Hala nola, segidako adibideetan, gure bi corpus nagusietatik ekarriak (0, 1 eta 2 osagarritakoak):

- (168) (0) **Beste gauza bat ... eta egiñ bear ez dana ...** (Med, 83)
- (169) (0) Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen **faborerik, ahaidetik eta ez urrerik, eta ez zilharrik hauts arazi ahal ziazaionik.** (Ax, 391)
- (170) (0) ...: ezta arnegurik, ..., eta ez **gezurrik** ere **erran eztezakeienik.** (Ax, 397)
- (171) (0) ... **ilusiyo bat, planteatzen dana, ...** (KM, 90)
- (172) (0) ..., **eragina daukana**, da, oso haundiya. [**eragina, daukana**] (KM, 117)
- (173) (0) Ta **dirua, irabazten dana, ...** (KK, 160)
- (174) (0) Eta gero hemen dago **beste gauz bat argitu behar dana.** (ELZ, 295)
- (175) (0) Eta **gauza asko, egingo zenittuzkeanak**, ba karguagatik, eo txartelagatik, eo eztakit zergatik, ezin ditzuzu egin. (S, 271)
- (176) (1) ..., ikusten degunean **ume bat zerbait berotasun daukana, ...** (Med, 39)
- (177) (1) ..., bada gurasoentzat ona da jakitea **zenbait gauza umeai dagozkienak, ...** (Med, 87)
- (178) (1) ... eta **bañua onela artutzen dana** izan oi da gogorragoa eta geienentzat bai eta obeagoa ere, ... (Med, 102)
- (179) (1) ... hark ere, **Guifrapelos Bartzelonako kondearen alaba, gomendiotan eman ziotena**, gorputzez izan zuenean hil arazi zuen. (Ax, 399)
- (180) (1) Orregatic ipiñi zuan bigarren **Sacramentu bat, Confirmacioa deritzana, ...** (Ag, I, 92)
- (181) (1) Gure tokietan ere teilaterietan egiten dituzte **labe batzuek zerbait iduri dutenak.** (Dv, 115)
- (182) (1) ..., eta nork daki **bertze zenbat, eskuaraz izenda ez detzazkegunak!** (Et, 67)
- (183) (1) Bazuen **alaba bat hainitz maite zuena** eta ... (W, I, 15)
- (184) (2) ..., botatzen da oetara **libra bat jaboe arropak garbitzen erabili oi dana, eta ...**(Med, 27)

1.2.3. atalean bildu dugun *Cassez le bois que vous avez ramassé - Partid la leña que habeis recogido* EAELeko osagarririk gabeko erlatibozko esaldia, itzulpen sistemak duen balioa duela, hiztunen %12,8ak ematen du -(e)n... aposizio bidez.

## 4.2. Esaldi luzeetan ohikoago

Hala dio estatistikak, eta modu txukunagoa ere ba ote den diote ikastunek (Gavel, De Rijk, Oihartzabal; ik. 1. atala). Zenbait bereizketa egin genezake, erabili determinatzailearen ingurutik.

### 4.2.1. Zeinahi izen ardatz mugaturen ondoretik<sup>16</sup>

Artikulu, erakusle, izen propio edo izenordeen ondoretik ere.

#### 4.2.1.1. Artikulu mugatzailearen ondoretik

Idatzizko (195-222) zein ahozko (185-194) testigantzetan, izan beharrik gabe esaldi esplikatioak (hauetakoak ere badiren arren), segidako adibide gehienetan ikus litekeen bezala:

- (185) Eta eruten sitxuesen onek **kargako txalopak**, *Santoñá-ta juten-tzienak*-eta, ... (Gor, 103)
- (186) **artoak** *Bakidxon dausenak* a, asto batek dxango leukes (Gam, Bakio, 276)
- (187) ... **bodegak** oso gutxi zian *literak zituenak* (Orio, 183)
- (188) ..., baño oaindik e baiala ustet **basarrik erratza ibiltzeuenak**, *eskoben tokin ba, garbitzeko*. (Orio, 196)
- (189) - Ze **usain tzarra uzuna** Martin (Zer **usain tzarra duzuna** Martin ...) (Duh, 127)<sup>16bis</sup>
- (190) Ura izan san **mutilla geiago etorri etzana** = fue un muchaco que no vino más (G.) (Alz, 207)
- (191) Eta garbi dagoena da, ba, gaur egun, gaur egungo **ikasleak**, *A ereduan euskalduntzen direnak*, ez dutela, ez dakitela euskeraz. (ELI, 217)
- (192) Abantaila bat daukagu: gure aurretik egon dira **herriak beren buruari sozialista deitu diotenak**, ... (M. Intxaurraga, elkarrizketa, *EEg*, 1994-III-26, 40)
- (193) Hala ere, baziren guda garaian **euskaldunak alemanen alde zirenak** ere. (Xan, 39)
- (194) Lapurtera klasikoak baditu **hizkuntz mailak beste euskalkiak ez dituztenak**. (F. Krutwig, elkarrizketa, *Jakin* 101, Uzt.-Abuz. 1997, 72)
- (195) ... Mezan eguitendiraden oracioac, eta **sacrificioa ofrecicen dena**, guciendaco aprouechacen diradenean (Ber, 28 b)
- (196) ..., eta lurrean dutela baquea **guiçonec**, *vorondate ona dutenec*, ... (Ber, 42 b)<sup>17</sup>
- (197) Iuramentu anhitz egitea, bethi burhoz, arneguz eta maradzinoz egoitea eta minzatzea, ifernuko usantza da, eta **hitzkuntza ifernuan usatzen dena**. (Ax, §173)<sup>18</sup>
- (198) ... elduco da **dembora betico onetsi, eta gozatuco zaitudana!** (Kar, XVI, 137)

16. Adibideak sistematikotasunik gabeak dira, eta maiz unean uneko irakurraldietatik atereak.

16bis. Adibide honetan, 4.4.2. atalekoetan bezala, errazago postula liteke erlatibo librea ote den: Ze **usain tzarra den duzuna**.

17. Bi adibide hauek emanda, I. Seguiolak esaten du (ap. I. Camino, 1997, 474), hala ere ez dela egitura hau Beraiainenean hain usuzkoa nola izen-buru soilaren ondotikoa (*Ayngueru beguiracen gaytuena*, ...).

18. Adibide honetan, nola segidakoan, ez da jakiterik izen ardatza determinatua den edo ez.

- (199) ... ni naz **guizon baquetsuba**, ..., **ez daquidana** *dongaric eguiten*. (Mo, 49)
- (200) Eguizu laster **sangrija eguingo dozuna**, ... (Mo, 76)
- (201) Badira **animalichoac beren arraultzac ifintzen dituztenac** *frutaren gañean*. (Itur, 21)
- (202) ..., badira Eskuarazko **liburuak**, *jende xehek ere irakurtzen ahal dituztenak*. (HU, 1994, 177)
- (203) ..., gelditu zirala bizi izaten batzuek Ebroko erriyoz **aruzko aldean gaur erdaldunen lurtzat ezagutzen degun artan** eta besteak esandako erriyo ortzaz unuztik, ... (Med, 16)
- (204) Badaurik artu bear dan edo ez bañua, da beste **galdera jende askok egiñ oi duana**, zeñari erantzungo diogun esanaz ... (Med, 99)
- (205) ¡Ori da tamala, orren **mutil ederra lora-lora dagona** iltia! (JMA 1023;<sup>19</sup> Mo)
- (206) Geltokiko **gizona -geroago Txurio nardagarri bihurtuko zana-** errenka lez ibilten hasi zan (JMA, 1023; Erk)
- (207) Eta iritxiko da **eguna erraten ari naizen hau normaltzat hartua izanen dena** (JMA, 1023; Iri)
- (208) ..., jaun kalonje zenaren **ilobasoa**, *haren izen-deitura ber-berak dituen*a: ... (Laf, 16)
- (209) Lendabiziko **gudaldia parte hartu zuena** Talaverakoa izan zen (JMA, 672; Etxa)
- (210) **Anderea**, *senarrarekin oso bat ez omen zebilena*, haurgintza minetan hil zen gero (JMA 1024; Etxa)
- (211) Berez **gizon indartsua ta sanoa** osasunez alegia. Baiña lan asko egindakoa *ta gorputza nekaturik daukana*. *Edadez ere, berriz, oso aurrera dijoana*. (Las, 57)
- (212) ..., eta esaten zuten bazituala **lagunak artan ibiltzen ziranak**, ... (Ai, 41)
- (213) **Saskigileak**, *artan aritzen direnak*, labe bereziak dituzte ortarako jarriak. (Ai, 41)
- (214) Ala bukatu zan **egin nuen okerra**, *bizi naizen arte aaztuko etzaidana*. (Ai, 98)
- (215) Hemen erran dizuegun bezala, gure **lekukotasun batekin** zoazte egun Kaliforniarat: **gure ordezkari eta enbaxadore kargua: han bete beharko duzuen**a, ... (E. Larre, *Herria*, 2292, 1995-II-16, 1)<sup>20</sup>
- (216) Badira bai **gure etxe honetako ume sanoak, badakitenak** *etxeko aitatxirekin bezala egiten*. (E.Larre, *Herria*, 1998-VII-2, 1)
- (217) ...: **ortografia zaharra** («ch» eta «ou» *grafemak erabiltzen dituen*a) *desagertzera bezala dagoena baina oraino batzuetan kausitzen dena*; ... (B. Oihartzabal, *Jakin*, 76, 1993, 87)
- (218) Ez da asko, baina ehundaka dira **hitzak euskara batuan tradizio eskasagoa dutenak**. (Sar, 168)

19. JMA (Agirre, J.M., 1991)-ren adibideetan, orrialdeaz gain ematen dugu autorearen identifikaziorako seinalea.

20. Ohartzekoa da lehen eta bigarren izen ardatzaren eta aposizioaren arteko komunztadura falta. lk. 4.9.2. atala.



- (219) Hau da **egia, egia hutsa, sekulan erakatsi ez digutena eskolan**. (G. Pontto -J. Haritselhar-, *Herria*, 2459, 1998-VI-11, 8)
- (220) Nongoa zen Ubu? Non nahikoa, munduan gaindi baitira edo **jendeak edo politika sistimak beren zilko haundiari so-egiten diotenak**. (G. Pontto -J. Haritselhar-, *Herria*, 1999-XII-12, 8)
- (221) Bada beti **jendea eskatzen duena engaiamendu esplizitu bat, ...** (U. Apalategi, *EEg*, 1998-IV-19, 30)
- (222) **Iparraldeko lagun batzuen hitzak** irakurri ditut egunkari honetan, **azpimarratzen dutenak ez dela hori gure azken jomuga, ...** (J.L. Davant, *EEg*, 1999-III-7, 2)

#### 4.2.1.2. Erakusleen ondoretik

- (223) ..., arako lenago aitortu ditugun **gaxo eta gaitz bildugarri aek jendea bat batera artu eta pillaka illtzen dutenak; ...** (Med, 21-2)
- (224) Ez da bada zalla orrenbeste zabaldua dagoan **kanale toki au eta beti lanean dagoana**, maiz gaxotzea, ... (Med, 66)
- (225) Baina zer laiteke, **aintzinamendu hori, gure etxetik gu kanpo ezartzen gaituena**. (E. Larre, *Herria*, 1995-II-2, 1)
- (226) ..., eta baporean tutu lodi-luze eta negartiak hasi zirenean nabaritu nuen urdailean halako bigarren **kolpe minkor hura, geroztik nire sentikortasunaren seinale betirako geratu zaidana, ...** (Ug, 33)
- (227) Baina **lan hori** hor dago, **urte luzeetan beste inork egingo ez duena, ...** (GEg, 1985, 104)
- (228) Behin baino gehiagotan gogoratzen dut **sententzia hura, on Segundok antiparren gainetik begiratzuz, ezkerreko begia erdi itxita, sarri esaten ziguna; ...** (Esnal, 1996, 71)
- (229) ...: emakumeok harremanetan jartzen garenean, badaukagu **elementu pertsonal hori, lantzen duguna, elkartzen gaituena: ...** (A. Vazquez, *EEg*, 1995-VIII-13, 32)
- (230) Zein dira **galleta horiek, txakurrari gustatzen zaizkionak?** (J.M. Pastor, *EEg*, 1998-XI-13, 3)

#### 4.2.1.3. Izen propioen ondoretik

- (231) ..., ikus citzan bi anaye, **Simon, Pierris erraiten dena**, eta ... (Leiz, Mat, 4, 18)
- (232) Oraiko **Zanpanzar, urte hasieran egiten dena**, erregetako Txintzarri hoik, Olentzero bera, hoiek guztiak gauza bera ziren. (S, 10)
- (233) Eta **Jan-Batit, orok nausi-burutzat aspaldi onhartua dutena, ...** (Bar, 34)
- (234) **Mgr. Jauffret, errepublikano famarekin heldu zena, ...** (Laf, 26)
- (235) Baionan aurkitu zuen berriz **Jean Barbier, bi urte lehenago Larresoroko Semenariotik bikari joana zena**. (Laf, 22)
- (236) Abenduaren 10-ean hil izan zen **Gratien Adéma, Baionako eliza-nausian kalonje zena**. (Laf, 22)
- (237) **Damian artean zutunik egoana**, butaka ... (JMA, 672; Erk)



(238) ..., nik sei urte ta nere atzetikan **beste aizpa, au Jexuxa, tintorerin eon dan au,** *Agiñan bizi ana,* eta **Juanito basarrin dona,** ua zan txikiya, ... (Orio, 194).

Edo izen propioen antzeko izan litezkeen **beste izen arrunt** erabat mugatuen ondoren:

(239) Gure **amak aurten 96 urte izango dituenak,** hamalau seme-alaba izan zizkian. (J. Mallea, *EEg*, 1995-IV-14, 32)

(240) Ingeleseztako “**breakdown**” **berak** kimikan espainierazko “**descomposición**” eta frantseseztako “**décomposition**”, *euskaraz Kintanak “desosera” proposatu duena*[,] esan nahi du. (A. Sagarna, *Senez*, 1, 1984, 60)

#### 4.2.1.4. Izenorde pertsonalen ondoretik

(241) Banagoc **oni, diñoanari obe dala bacarric egotea** ... (Mik, 27)

(242) Emaidazue indarra **zuok egunero argi pusketa bat jasotzen duzenok** (JMA, 672; Atx)

(243) (oañ maestreak eta,) ..., **zuek or zailztaten oik,** ... (Fraile, 131)

(244) Pieza bateko euskotarrak dire **horiek, aspalditik ahantzia dutenak aiten-aitek naparrak ziren edo giputzak.** (R. Labaien, *EEg*, 1995-XI-11, 3)

#### 4.2.2. Izen ardatza zenbatzaile zehaztu edo zehaztugabeek determinatua

Hala ere, badirudi -(e)n... aposizioak izen ardatz mugatuen ondoretik baino maizago eman ohi direla izen ardatz hau zenbatzaile zehaztu edo zehaztugabeek determinatzen dutenean (*bat, gutxi, asko, zenbait, hainbat, ...*). Halakoetan garbiagoa izan ohi da aposizioen rol murriztailea.

##### 4.2.2.1. Bat determinatzailearen ondoren

(245) Gaur gaurkoz, oraindik bada **4tik 1** herri honetan, *bere umeentzako A eredia egoki ikusten duena.* (ELZ, 214)

(246) **Lagun bat** neukan *elkarrekin jartzen ginenak pupitrean.* (G. Etxaniz, *EEg*, 1995-VIII-18, 32) [ik. 4.9.3.]

(247) Bazen **bat lanbide heziketan irakasle zena** eta **bazekiena kit batekin nola montatu irratia.** (J. Otamendi, *EEg*, 1997, VIII, 17, 32)

(248) ..., galthatzen déizut **grazia bat neke ezténa,** ... (Int, 10)

(249) Cer iturri negarrescoa asquico ote da, garviceco **vioz bat culpas veteric dagona!** (BOEHGN, 1534)

(250) ...; **izen bat, eskuarak eztuena orai arte,** ... (HU, 1994, 200)

(251) Badut **makur bat, ezagutzen nuten guziek, hala nola Gaston Larre apezak, aipa ahal lezakezutena:** ... (HU, 1971, 29)

(252) ... agertu zen Parisen **liburu bat, izigarrizko haroa Frantzia guzian altxatu zuena.** (HU, 1971, 59)

(253) ..., egun guziez ager-arazten **kazeta bat La Libre Parole erraiten diotena, eta oraino sei hilabete baizik ez duelarik agertzen hasia dela, berrehun mila irakurtzaletaraino badituena.** (HU, 1971, 60)

- (254) Behin bazen **artzain gazte bat** *Anaios izena zuena* (JMA, 1023; Iri)
- (255) **Beste gauz bat ikusten dana** *gaurko egunean*, ezkontza kontuak ... (Ai, 153)
- (256) Hona gure ustezko pobretasunaren **beste seinale bat**, *espainolaren ikuspuntua utzi ahala kea bezala suntsitzen dena!* (Sar, 137)
- (257) Gaur egun bada gure artean **joera bat** *betikoa dioena*: ... (Sar, 140)
- (258) Erabaki berak omen zuen **beste atal bat**, **debekatzen zuena** *talde handian bizitzea*, ... (P. Altuna, *Iker* 10, 1997, 29)
- (259) ..., bromuroa zen **botika bat** *larrutarako edo idiarena jotzeko gogoia kentzen zuena*. (I. Seguroa, *EEg*, 1998-VII-1, 6)

I. Caminok jasotzen du segidako bitxia, nominalizaziorik gabea, Aezkoan (1997, 477):<sup>21</sup>

(260) **gauza bat eztaon** *ongi einik* (Ab.)

#### 4.2.2.2. Batzuk *determinatzailearen ondoren*

- (261) Hemen badaude **belarri batzuk** *sobera interesatuak daudenak* *gugatik*, ... (Xan, 39)
- (262) Baziren **batzuk** *gizonak ekartzeaz arduratzen zirenak*. (Xan, 39)
- (263) Han, hemen bezala, badira **hitz batzuk** *erdatatik datozenak*. (Xan, 41)
- (264) ... **beguiratuegui batzuec**, **ondo iritzico ezdienac** *emen arquituco diran guertaera miragarri, edo esan oi dan bezala, egemploai*. (Mo, 1800, IX)
- (265) Badira **yende batzu ouste dutenak** *kolerak ongi egiten diela*, ... (Arxu, 1868, 34)
- (266) Gure tokietan ere teilaterietan egiten dituzte **labe batzuek zerbait iduri dutenak**. (Dv, 115)
- (267) ..., eta hortakotz establitu zituztela **lege batzu guziek begiratu behar zituztenak**. (Eliz, 1890, 38)
- (268) Badire **bertze batzu**, *oraino beren ustez eskuara dakitenak*. (HU, 1994, 182)
- (269) Esakune zarren artean badira **batzuk** *labur-laburrak, itz bi soil-soilik daukezanak*. (Azkue, 1921, 51)
- (270) Baina ba omen dira orain **amatxi berri batzu**, *ahalge omen direnak*, *gaixoak, beren amatxitasunaz eta itxura tindatu faltsuarentzat saltzen dutenak* *amatxiaren barneko urrea*. (E. Larre, *Herria*, 1996-I-25, 1)

#### 4.2.2.3. Beste zenbatzaile zehaztu zenbaiten ondoren (bi, hiru, ...)

- (271) ZUR eta ZIZ izan dia **bi programa**, *Madrideko gobernuak martxan ipini zuenak*. (KR, 96)
- (272) Bazitien **bi aizo bizi zirenak aisean**. (C, I, 21)
- (273) **Bi bekhatu suerte** *dira, begiz begi, eta artez Elizagizonari kontra dagotzanak*. (Ax, 409)

<sup>21</sup> Antzeko adibide nominalizazio gabea (288)n ere (Sarako Etxeberrirena), *zenbait zenbatzailearen ondoren*.

- (274) Bost garagar ogi, eta **bi ezkalu mutiko batek zeuzkanak** arkitu zituzten. (Lard, b, 59)
- (275) Haren segidan ziren **bi landa handi, urthe guzietz ikusten zirenak, aldizka, bat ogiz eta bertzea arthoz estaliak**. (Eliz, 1983, 7)
- (276) Oiek dira **bi arrazoi Lazkao-Txiki zanari indar berezia ematen ziotenak**. (Las, 52)
- (277) ..., badaude beste **bi atal, azpimarratutako zailtasuna areagotu besterik egiten ez dutenak**; ... (A. Iturbide, *Jakin*, 64, 1991, 140)
- (278) Beiatzazu ungi eta erbi auk. Autan baituzue **hiu arrak dienak**. (EES, 25)
- (279) ..., gure etxean badaude **beste iru, nik mantendu behar ditudanak**, ... (Las, 19)
- (280) Gaztigu horietarik badire **hirur, iduri dutenak bertzeren orozgainekoak**, ... (Eliz, 1890, 37)
- (281) **Lau gauza arrazoizco ezagüerara eldutzen danean christavac jaquin beardituanac**. (Agerre, 535)
- (282) ..., eta 28 horietan badira **hogei** bederen *unibertsitateko irakasleak* **direnak**. (H, 67)
- (283) ... Arana-Goirik **320 lagun** ekarri zituelarik bere alde, *deus ere ez zakitenak mintzairerak* **ezakitenak** *mintzairerak*. (Laf, 39)
- (284) ..., **amalau milla aurcho, Herodesec illerazo cituenac**, ... (Larr, 49)

#### 4.2.2.4. Zenbait / Hainbat *determinatzaileen ondoren*

- (285) ..., uruski egun otan baditugu **zonbaitzuk onat yinen dienak**. (EEB, 35)
- (286) Ba, alta badira Auritzen ere **bakan zenbeit, ona badakitena euskara** (Aria) (C a m , 476)
- (287) Eta hor dauden **zenbait gauza, oaiñik galdu eztirenak**, horretarako ziren, ... (S, 33)
- (288) ...; eta oraino, **combait lo datçan**-ere Escuaraz isquiribatcera, behar-bada atçar-aracico; ... (EtxSa, 323)<sup>22</sup>
- (289) ... badire **zenbait letra kasu egüin behar direnac**, ... (Jau, 4)
- (290) ..., badira **beste zenbait uste dutenak medikantza egiñ litekeala ezer ikasi gabe**; ... (Med, 26)
- (291) ..., eta erabilliaz aoan **beste zenbait garbigarri artarako egiñak egoten diran aek**. (Med, 62)
- (292) ..., eta irugarrenean izendatuko ditugu **beste zenbait eginkizun bañua artutakoan kontuan eduki bear diranak**. (Med, 99)
- (293) Badira hetarik **zonbeit jaun harek berak eginak, nehun hanbat kausitzen ez direnak**. (HU, 1994, 177)
- (294) Badira **zenbait laborari urte bat baino gehiagotan horri buruz kezkatuak ari direnak, gu, goxoan ginaudelarik** ... (P.D., *Herria*, 1995-II-9, 4)
- (295) Badira **zenbait, lapurrerian bizi direnak**. (EH, 778, *zenbait*)

22. Aurreko oharrean aipatu bezala, berezia da adibidea, mugatzailerik gabea (ik. 250 adibidea).

- (296) Hala ere, bi familien artean badira amodiozko **zenbait harreman**, oso lotura bereziak **sortzen dituztenak**. (EEg, 1997-IX-8, 28)
- (297) ...; eta badirela gainera, **hainbat azterketa**, *eredu hoiengandik* **egin direnak**. (ELI, 184)
- (298) Eta gaur badaude **hainbat dato**, **adierazten dutenak**, *nahiz eta ez den iritsi helburua, baino, aurrera pauso ikaragarri bat eman dela*. (ELZ, 253)

#### 4.2.2.5. Asko / Anitz determinatzaileen ondoren

- (299) Eta **gauza asko**, **egingo zenituzkeenak**, ba karguagatik, eo txartelagatik, eo eztaikit zergatik, ezin dituzu egin. (S, 271)
- (300) Ez dezagun ahaztu, ba, **ume asko** datozela eskolara, *A, B edo D ...*, *A eta B eredu bereziki, beren etxeetan euskera zenik ere, edo denik ere*, **ez dakitenak**, eta, e ..., etorri berriak, *oraindik behar bezela hemen integratu gabe* **daudenak**, eta abar. (ELZ, 243)
- (301) Ta sistema hortan dare **enpresa asko** desorekatuta, *estruktura onik ez dutenak: alde batetik estruktura ekonomikoak, bestetik, gestioko estrukturak*. (KR, 57)
- (302) ..., ta onelaco **Eliz itz asco igaro diranac** *crisau erri gucietao itzcundeetara*. ... (Mo, 1800, XII)
- (303) ...; eta uste izanic beste bateti **arima asco**, ... *Yaungoicozcoac izatera elduco litzatekezanac*, ... (Añ, 1821, 5)
- (304) Guthartean bada **asko indiano** Ameriketarik ethorrik, **erran dezaketenak** *aurkhintza hetan egiten duela uria berrogoi eta hamar bat egunez lerroan* ... (Dv, 48)
- (305) ...: **jende asko** dago, *arrazoi bat eta bestearengatik, umore gutxi* **daukana justu Aste Nagusian**, eta *umorea* **izango duena festa egiteko Aste Nagusiko hurrengo astean**. (R. Labaien, EEg, 1995-VIII-13, 24)
- (306) ..., bazkari edo aphairu on bat eman nahi duenak, behar ditu egin arazi **anhitz jateko suerte**, *gostu bera* **izanen ez dutenak**; baina **diranak izanen batzu eztiak, bertzeak biziak**, ... (Eliz, 1993, 1)
- (307) Louis XIIc arra-eraiki zian **Eliza hanitz** Mariari konsekraturik, *Higanautek errerik edo egotchiric* **izan zirenak**; ... (Int, 25)
- (308) ... laranja ondo, citronniers, palmiers, seska, eukalyptus, caroubiers eta **bertze hanitz zuhamu mota itzal gehiago daukatenak**, ... (Et, 68)

#### 4.2.2.6. Hainbeste / Hainbertze determinatzailearen ondoren

- (309) ...: **aimbeste arrai** ichasoan, **aimbeste egazti**, ta **abere** lurrean, zure janari, erregalo, ta jantciraco, zu servitceco, zuri ceruco bidean laguntceco, ta **diranac zure mendean**: ... (Kar, III, 57)
- (310) ... eta **aimbeste milla anima an ceudenac**, ... (Kar, XI, 49)
- (311) Gañera berriz parajeko betiko berdantza eta aize garbia, eta iturrietako ur ugariak, dira **beste aiñ beste gauza egiten dutenak** *gure bizi leku au izatea ezagutzen diranetan onenetakoa*; ... (Med, 14)

(312) ... ez dala gauza zalla gertatzea, gure parajeon gertatzen dan bezela, izatea **aiñbeste jende modu askotako kolpe, ebaki, edo ezur autsi eta atere izan oi dituztenak**, ... (Med, 74)

(313) ...; bainan **hainbertze usain on** baita *gizonek batere lilirik gabe egiten dituztenak, guziz Alemanian*, behinere ez baitira oraino heldu ... (Et, 71)

#### 4.2.2.7. Ugari, Franko, Gehiago, Eli bat, Milaka *determinatzaileen ondoren*

(314) Badago munduan **mingainik ugari miztoa maramara dariona** (JMA, 672; Etxa)

(315) **Debru franko** badela *saindu itxura hartzen duenik* (JMA, 1023; JBEliz)

(316)... akordioa bera betetzeko, **1.100 irakasle euskaldun gehiago** beharko genituzke, **ez dauzkagunak**. (ELZ, 338)

(317) Baziran **neurri gehiago** ere **ibiltzen ziranak**, (aietako bat *arrabete* esaten zitzaiona): ... (Ai, 65)

(318) Bazirén Judean, Nazarétheko hiri tchipuan, **senhar emazte saindu elibat**, *Joachim eta Anna deitzen zirénak*. (Int, 13)

(319) Badira **milaka bereber joan direnak** *Ameriketara hemendik* ... (Herria, 1996-I-4, 1)

#### 4.2.2.8. Gutxi / Gutxi *determinatzailearen ondoren*

(320) ...: eta **guti** dirade *hura erideiten dutenac*. (Leiz, Mat, 7, 14)

(321) ...; au da gaitz bildurgarri eta izugarria zergatikan **biziro ume gutxi** sendatuzten diran *berak jotzen dituanak*; ... (Med, 92)

(322) Jenden garbitasunaz, kabalenaz, barnekoetaz aiphu zeiezte lehenik, **guti** baita oraino *ohartuak zaizkonik*, ... (Et, 55)

(323) **Uri gutxi** izango dira *Eusko-Ikaskuntzaren bazkiderik bizi ez danik*; ... (Zinkunegi, 1923, 14)

(324) Gaur **nekazari gutxi** egongo dira, nere iritziz, *baserria besterena dutenak*. (Las, 51)

(325) Eta **euskal irakurle gutxi** dira, nik uste, *horrenbesteraino heldu ez direnak* (JMA, 1023; Mitx)

#### 4.2.2.9. Edozein, Zein-nahi *determinatzaileen ondoren*

(326) ...; guri ez dagokigu emen esatea ez bada, eduki bear dala erremediatzat **edozein gauza gaxorik dagoanak artu al dezakeana**, zeñaren bitartez berari osasuna biurtu litzaiokean. (Med, 11)

(327) ...; geienean artu litekeala goizetik, eta bai eta ere ordu bat edo biz aurretik gauza gutxi bat nola dan kafe-esne, edo arrautza bat, edo onelako **edozeiñ gauza usariyo daukana bakoitzak** artu eta gero; ... (Med, 99-100)

(328) ...; bada sortu liteke onetatik buruko odol kolpe bat edo **beste edozeiñ gauza oker iñork gutxiena uste izan leikeana**. (Med, 103)

(329) ... **cein-nahi adjectiuo**, eta **icen-ordain**, eta **relatiuo**, eta **verbo hei juntatcen çajena**, içanen da pluraleco. (EtxSa, 291)

#### 4.2.2.10. Galdetzaille izenorde edo izenlagun baten ondoren (zenbat, nor, ...)

- (330) **Nork** lortuko du gaitasun hori gaztelaniaz, *jatorriz euskalduna dana*, eta *eskolan inoiz gaztelaniazko gai bat ematen ez duna?* (ELGo, 300)
- (331) Ecen **nor** da çuetaric guiçona, *baldin bere semea ogui esca badaquió, harri emanen draucana?* (Leiz, Mat, 7, 9)
- (332) **Cembat cristau urte osoetan egon ciranac** *lotsaz aguertu gabe becatu ichusiren bat edo asco, ...!* (Mo, 1800, XI)
- (333) Eztago icusi baño **ceimbat tolara** topetan dirian etxe zaarretan, *ecertaco eztirianac gaur.* (Mo, 95)
- (334) ... *¿nor guizonaganaco Jaungoicoaren amorioa ezagutcen duena, Jaungoicoac guizonaren alde eguin izan dituen mirari andiac daquizquiena, ...?* (Lard, a, 3)
- (335) ..., bazituen ez dakit **zonbat soldado**, *harmak eskuan, xutik, han zaudenak.* (HU, 1971, 46)
- (336) Orok laket zuten Kattinekin solasean egoitea: **nor** ziteken, *urrikari eztukenik?* (Et, 53)
- (337) ..., eta nork daki **bertze zenbat**, *eskuaraz izenda ez detzazkegunak!* (Et, 67)

#### 4.2.2.11. Izenorde baten ondoretik (norbait, zerbait, nor, ...)

- (338) ...: beti dute **zerbait alai izaten laguntzen diena.** (A. Sallaberri, in I. Madina, *EEg*, 1995-VIII-24, 32)
- (339) Eguiten du, benicbeñ, aurraren icenean izan dedin **norbait**, *batayoraco bear dana aguintzen duana.* (Ag, I, 81)
- (340) ... **norbait** ikusi balu bezela *zer edo zer gauza txarra egin nai diona*, ... (Med, 89)
- (341) Errondali buruzko **zerbait**, *nik ezagutzen ez nuena?* (Ler, 1994, 146)
- (342) **Nor** balimada **dakiena** 'dakien norbait baldin badago' (Orba.) (Cam, 477)
- (343) Bada **norbait** *Frantziako errege dena.* (Osa, 32)

### 4.3. Erlatibo aposizioak partitiboan [-(e)nik], ezezko esaldietan eta bestetan

Ezezko esaldietan maiz aurkitzen dira erlatibo aposatuak partitiboan, *-(e)nik* atzizki bidez, izen ardatza bera ere maiz partitiboan emana delarik, *bat*, *bakar bat* edo itxurako determinante bidez, edota *inor*, *ezer*, *deus* edo antzeko izenordeen ondotik. Tarteka baiezko esaldietan ere aurki litezke halako aposizioak. Arrunki izen ardatza nominatiboan emana izanen da.<sup>23</sup>

#### 4.3.1. Izen ardatza partitiboan

- (344) Ezta **makurrik oni lotzen etzeonik** (Orba.) (Cam, 477)
- (345) Ez dau **pertsonaik**, *hori defendituko duenik*, ... (ELGu, 380)

23. Nahiz ez izan hori aukera bakarra. Lizardik *Itz-lauz* bilduman ematen du segidako aposizioa partitiboan izen ardatz ergatibo baten ondoren (JMA, 1023; *Itz-lauz*, 28): *lñork, eri danik eztu bein-ere maite izan osasuna guk gere miña aña.* Ez dut uste bitxiak izan arren baztergarriak direnik segidakoaren itxurakoak ere: *Ez du inoren beharrik, bera baino gutxiago denik. / Ez da inorekin atera, berak maite izan ez duenik.*

- (346) Ehonere eztacusat hayn laxo den **arçaynic** / *Oxoa (q)hencen eztuyenic bere ardiataric* (B. Etxepare, I, 105-106; ap. P. Altuna, 1979, 334)
- (347) ..., hambatetarano non ezpaitzen **populuric** ez **regioneric** *on irudi çayonaren araura lainco berriric eguiten etzuenic*. (Leiz, Advert., V)
- (348) Eta hain herstuki begiratzten zuen, non ezpaitzen **faborerik, ahaidetik eta ez urrerik, eta ez zilharrik hauts arazi ahal ziazaionik**. (Ax, 391)
- (349) ...: ezta **arnegurik, iuramenturik**, eta ez **falseriarik**, *emaztètan itsutua dagoen batek eztaidikeienik*, eta ez **gezurrik** ere **erran eztezakeienik**. (Ax, 397)
- (350) Ezta **inurririk** eta ez **pozoinik** *nagitasunak edo alferkeriak bezanbat kalte egiten duenik* (JMA, 671; Ax)
- (351) Ez da nihoiz izatu lurtean **guizonik hura Tronuz zenean goibeldu duenic**. (BOEL, 620)
- (352) ...: ezta beraz **emutskeriarik gu bara ahal gitzanik** *goure khorpitzaren, gore aropen, ..., eta han airearen berrieraztetik*. (Arxu, 35)
- (353) ..., hemendik zenbeit urtheren buruan ez baita gehiago izanen Eskual Herrian **eskualdunik eskuara dakienik**; ... (HU, 1994, 185)
- (354) Ez da munduan **mintzairik, aiphatzea doakokenik**, non ez dituen, hitzen behar bezala xuxen izkribatzeko, bere legeak; ... (HU, 1994, 190)
- (355) Hil-herrietan, emazte xume haren gorputzak ez du ukanen **egoitza eder berezirik, orhoitaraziko gituenik hartaz**. (Et, 53)
- (356) ... ez dago **amildegirik, biak arrotz eta guztiz aparteko egiten dituenik**. (Ler, 1994, 194)
- (357) Ez baitago **amarik bere seme-alabengatik edozer egiteko prest ez dagoenik**. (EGO, 676)

#### 4.3.2. Inor, nehor, deus, ezer, batere, zerbait, ... izen ardatzen ondoren ezezko esaldietan

- (358) Ez da **iñor ondo echea darabilenik**, ... (Kar, XVI, 96)
- (359) ..., **inortxo ezta erri atan zortzi bat urte eskolan irau eztabezanik**; ... (Az, 1921, 60)
- (360) Nik ez det iñoiz **inor** ikusi, *baserriak erabat pozturik edo bereganaturik daukan nekazaririk*. (Las, 52)
- (361) Ez da **inor** munduan *hori nik baino hobeto dakienik*. (EGO, 676)
- (362) **Iñork, eri danik**, eztu bein-ere maite izan osasuna guk gere miña aña (JMA, 1023; Liz) (ik. 23. oharra)
- (363) Eztuc **nehor bere escua goldean eçarten eta guibelerat behatzen duenic propio denic** *laincoaren resumacotzat*. (Leiz, Luc, 10, 62)<sup>24</sup>
- (364) ...; ez da **nehor**, nehon, *hek bezain polliki lili bat sudurrerat deramakenik, atxik dezakenik han, girtainetik, bi erhien artean*. (Et, 68-9)

24. Esaldia bitxia ere gertatzen da bi erlatibo dituelarik izen ardatza zehazten, hurrenean bezalaxe.



- (365) Eta ezta **deus** izan ez *ceruan*, ez *lurrean* *lesus Christ bere lainco bere laun bere labe eçagutu eta aboatu ez* **tuenic** ... (Leiz, Advert, XI)
- (366) Ez zaut iduritzen baditekela mundu huntan **deus** *hanbat gizonaren bihotza hurbilagodanik* **hunkitzen duenic**, nola baitira ... (HU, 1994, 175)
- (367) ..., ez da **deus** *harekin iharduk ez dezakenik*. (Et, 55)
- (368) ... baldin orai-ere nahaiago (sic) ezbaduçu erran hitzcuntça guztietaric hunec galdu duela centçua eta libertatea, **bathere** eztelarican *centçua hambat* **seguitcen duenic**, ... (EtxSa, 19)
- (369) Nere baitarik ez dutanetz ezarriko **zerbeit hala gertatu ez denik** (JMA, 671; Et)

#### 4.3.3. Bat, bakar bat, ... *determinatzaileen ondoren ezezko esaldietan*

- (370) ..., eztu eridenen **hitzbat**-ere *hunetara behar* **eztagoenic eta hunetara guidatzen ezgaituenic**. (Leiz, Advert., XVIII)
- (371) Eskuaraz ez da **hitz bat hasten denic** *R ekin* zeren gatic ... (Jau, 9)
- (372) **Bat** ez baita izanen Bretaniako aphez guztietan, *debeku zoro hoi onhartuko duenic*; ez eta eiki **auzapez nor bera den bat**, *aphezaren salhatzeko aiher litakenik, bretonez mintzatu dela*. (HU, 1994, 195)
- (373) Ez da Bizkai osoan **mendi bakar bat ere honek zapaldu ez duenic**. (EGO, 676)
- (374) Ez dut uste hezkuntza munduan **elkarte bat bakarrik** dagoenik, ba, **hitzegin ez dugunik**, ... (ELZ, 74)

#### 4.3.4. *Edota baiezkoko esaldietan ere zentzu restriktibo batean*

Esaldi nagusia baiezkoko delarik, era guztietako izen ardatzen ondotik, eta erlatibozko esaldia bera baiezkoko zein ezezko izan litekeelarik.

- (375) txarridxe da **gauserik munduen dauenic** onena. (Gam, Bakio, 276)
- (376) Segur nic-ere erran ahal deçaquet ecen **milla** eriden içan balirade-ere, *ni arindu nenduqueitenic pena hunetaric* ... (Leiz, Erreginari eskaintza, III)
- (377) ..., ikussi diagu **norbeit hire icenean deabruac campora egoizten cituenic**: ... (Leiz, Luc, 9, 49)
- (378) Othe lizateke **nehor** ere, heken artean, *bizitze luzearen esperantza luenik?* (Ax, §38)
- (379) ... Echean **iñor daquienic** badezu, ... (Kar, XVI, 112)
- (380) Baldin bada **yeusic çuen dispositioneary offrey ditaqueyenic** herri huntan ... (1780, GEg, 1991, 94)
- (381) Ohartzen bazare badela **bat edo bertze jana histua duenic**, begira zozu ... (Dv, 130)
- (382) (... , non da) **jendaki argitu edo salbaia zuk ikhusi ez duzunik?** (Dv, 39)
- (383) Egungo eskoletan **asko eta asko** ikhasten da, *bertze orduz ikhasten ez ginuenic*. (HU, 1994, 186)
- (384) Orok laket zuten Kattinekin solasean egoitea: **nor** ziteken, *urrikari ez* **zutenik?** (Et, 53)



- (385) Jenden garbitasunaz, kabalenaz, barnekoetaz aiphu zeiezte lehenik, **guti** baita oraino *ohartuak zaizkonik*, ... (Et, 55)
- (386) **Uri gutxi** izango dira *Eusko-Ikaskuntzaren bazkiderik bizi ez danik*; ... (Zinkunegi, 1923, 14)
- (387) **Nehor guti** baita, nitaz kanpo, *horren berri dakienik* (JMA, 671; Xal)
- (388) Bertsolariak ba-dau alako **zer bat**, *eskolatuen artean izaten ez danik* (JMA, 1023, Ona)
- (389) Izan zen **bestarik**, segur, *zuen amets bera egin zutenik, duela hiru-lau ilabete HERRIAren urrezko ezteietako zozketa hartan*. (E. Larre, *Herria*, 1995-II-16, 1)
- (390) Jenden garbitasunaz, kabalenaz, barnekoetaz aiphu zeiezte lehenik, **guti** baita oraino *ohartuak zaizkonik*, ... (Et, 55)

#### 4.4. Erlatibo aposizioak harridura esaldietan

Izen ardatzaren ondoko erlatiboa arrunta gertatzen da harridura esaldietan. Hala, erakusleen (edo hauetatik eratorrien) bidezkoetan —*hau, hori, hura, hauek, horra, ...*— (I. eta E. Zubirik jaso bezala, 576); nola, *ze, a ze, a ze nolako, zein, zer, ai zer, ...* galdegileen bidez osatueta; edota batere partikularik gabe ere bai (inoiz *bai* partikula bidez ere). Egitura oso erabilia da ahozko euskaran. Idatzizkoan, harridura esaldiek ohi dituzten mugetan. (ik. Agirre 1991).

##### 4.4.1. Erakusle edo eratorrien ondoretik

Egitura garbia da. Erakuslea absolutiboan (*hau, hori, hura* edo pluralak), gehi, *izan* aditzaren formaren bat (maiz ezabatu litekeena), gehi, izen singular edo plurala absolutiboan (inoiz atzerago ere —ik. 391—), gehi erlatibozko *-(e)na(k)* aposizioa absolutiboan bere osagarriekin.

- (391) **Ori** da **egin dozuna biarra** ba! (T. Ibarrola, *Aránzazu*, 1964, 351; ap. K. Etxenagusia (eta beste), 27)
- (392) **A** zan **atsegiña nik euki nebana igandian** (JMA 672; 1023; Mo)
- (393) Arrano-arranoa, **orixe** da **neskatilla ederra dagoana Mañasi** (JMA, 1023; TxAg)
- (394) **Axe** da **sarrakioa sartu eustana!** (JMA, 1023; TxAg)
- (395) **Orreik prakak yarri dozuzana!** ... (Zi, 22)
- (396) **Hau suertea eduki dudana!** (JMA, 1023; Amu)
- (397) **Hauxe** da **lantegia egiten diguna hontzak**. (Ler, in *Horrela bizi bagina beti. Euskal umorearen antologia*. Ap. Goierriarra.)
- (398) **Hori kaskarrekoa hartu duena horrek!** (J.A. Mujika, *Bakarka* 5, 1995, 162)
- (399) **Hau** da **lana Joxepa behiak ematen didana**. (Takolo, Pirritx eta Porrotx)
- (400) **Hau** da **ongietorria egiten didazuena!** (J.M. Azurmendi, in *Tintin Ameriketean*, 21)
- (401) **Hori gozatua hartu behar duena Karibeko Santo Domingon!** (EEg, 1998-I-18, 33)
- (402) **Hau sasoiak daukaguna!** (EGO, 576)

(403) **Hori alukeria egin didazuna!** (EGO, 576)

(404) **Hura mozkorra harrapatu genuena!** (EGO, 576)

(405) **Hori sustoa eman didazuna!** (EGO, 576)

(406) **Hori kolpea hartu duzuna!** (EGO, 576)

(407) **Aiek saltsak jarri zituenak baserritarren artean!** (Ai, 60)

Zenbaitetan erakusleen ordeztan, *hona, horra, ...* itxurako adberbioak eman ohi dira:

(408) **Horra etorkizun illuna baserriari etorri zaiona.** (Ai, 19)

#### 4.4.2. *Ze eta antzeko galdegileen ondoretik*

Partikula, gehi izena (mugatua), gehi *-(e)n...* aposizioa (singularrean?) bere osagarriekin:<sup>24bis</sup>

(409) **Ze usain tzarrauzuna** Martin (Zer **usain tzarra duzuna** Martin ...) (Duh, 127)

(410) **Aze nolako mesedea gizon arek guri egin ziguna!** (Ai, 100)

(411) **Zer nolako sarrera egin behar zuena!** (JMA 672; Zab)

(412) **Ai zer izketako abildadea daukana!** (J.R. Erauskin, 293)

(413) **Ai zer sermoilaria izango dana!** (J.R. Erauskin, 293)

#### 4.4.3. *Partikula berezirik gabe*

Partikula berezirik gabe ere, nahiz posibleak izan erakusleak edo ze itxurako galdegileak:

(414) **Egazi alagalakoak astokillok daroazanak** (JMA, 672; Kir)

(415) **Aro aldakorra daramaguna!** (Irigarai - Larreko, 95)

(416) Ikarearen gogorragaz konortea galdu ez ebanean! **Etxearen itxura aurki ebana!**  
(JMA, 672; Bil)

(417) **Txalo hotsa azeriak bere eginkizunagaz atera ebana!** (JMA, 672; Bil)

Halako harridura esaldi baten inguruan, aipagarri da Duvoisinek *Liburu Ederrean* Kardaberazi egiten dion zuzenketa. Honek *Aita San Ignacioren ...* liburuan segidako harridura esaldia ematen du izen ardatza erabat atzeraturik eta erlatiboazko esaldia aurretik, modu bitxian:

(418) **O arriac baño sortuago ceran nere arima!** (20)

Hala iruditu bide zitzaion Duvoisini ere, zeinak modu ohikoago batean ematen duen esaldia, bere bertsioan izen ardatza aurreraturik eta erlatiboan aposizioan:

(419) **Oi nere arima, harricotarrac berac baino sorragoa zarena!** (49)

---

<sup>24bis</sup>. Adibide hauetan, goragoko (189)n bezala, errazago postula liteke erlatibo libreak ote diren: *Ze usain tzarra den duzuna; Aze nolako mesedea zen gizon arek guri egin ziguna; ...* Hemen aipatu ditugu 4.4.1. atalekoekin duten erabateko antzekotasunarengatik, forman, nola funtzioan. Nolanahi, horrelakoak ez dira estatistikan kontuan hartu.

#### 4.4.4. Bai partikularen ondoretik ere (?)

Harriduretan *bai* partikularen ondoren, arrunta *-(e)la* atzizkia izango bada ere (adjektibo eta adberbioekin bederen), segidako adibidean dugu *-(e)n...* aposizioa ((421) adibidea nahasia litzateke hasierako erakusle eta guzti):

(420) **Bai kokotza daukana ezkerreko epaileak** (JMA, 672; Amu)

(421) **a ba durundue barruen iten dana** (Gam, Zamudio, 396)

#### 4.5. Erlatibo kateak

Erlatiboen aposizioa da euskaldunek maizenik erabili ohi duten bidea erlatibo bikoitzak edo erlatibo kateak osatzeko. Hala dio De Rijkek (1972, 169) Urruzunoren adibide argia erakutsiz. Zoritxarrez bestelakoa da gaur egungo estandar idatziko ohitura zabaldua. Erlatiboak pilatu izen ardatzaren ezkerretik, eta guztiak airean zintzilika utzi, kate amaierako izen ardatza iritsi arte. Adibide izan litezke segidakoak bezalako joskerak:

(422) *Atharratzen (Zuberoa) 1991. urteaz geroztik **kokotua den** eta arrantzako zein ere kobazulo ikerketako eta ur kiroletako jantziak **fabrikatzen dituen Licatex tailerreko zuzendariak** bere ekozkinei 'Made in Euskal Herria' jatorri marka jartzea erabaki du. (EEg, 1995-VI-4, 17)*

(423) *Espasa argitaletxeak plazaratu du 1995eko euskarazko argitalpenen Kritika Saria **irabazi zuen** eta —egileak berak atzoko aurkezpenean jakinarazi zuenez— memoriak iragana **izan zen moduan** gordetzeko eta itzultzeko gaitasunik ez duela pentsatuz **idatzi zen lan hau**. / ... / Eleberria nekez egiazkoa **den** iraganaren berregitea **den memoriari buruzko liburua da batez ere**. (EEg, 1998-II-18, 31)*

Ordenamendu horrek, ordea, muga argiak ditu. Ulergarrtasun eta jarraipen arazo larriak eragiten ditu; eten eta dislokazio jasangaitzak. Nire ustea da halako erlatibo pilaketa kasuetan euskaldunek maizenik bestela jokatu ohi dutela: eman- ez, beharbada, lehenengo erlatiboa izen ardatzaren ezkerretik, baina bigarrena eta hurrengoak maizenik aposatuz izen ardatzaren eskuinetik (ZEIN-erlatibo bidez ere bai, errekurtsio hau erabili dutenek), eta inoizka elkarren artean koordinatuz aposizioak konjuntzio kopulatibo edo adbertsatiboen bidez, nola ikus litekeen segidakoak bezalako adibideetan (gehiago eranskineko Medikantza testigantzen artean):

##### 4.5.1. Erlatiboak izen ardatzaren ezkerretik (*≈bat edo*) eta eskuinetik (*≈nahi adina edo*)

(424) *Nola ... aztu zaien asco **len cequiten itzquera Amaren bularretic cecartena**, ... (Mo, 1800, VII)<sup>25</sup>*

(425) *..., arako **lenago aitortu ditugun gaxo eta gaitz bildurgarri aek jendea bat batera artu eta pillaka illtzen dutenak**; ... (Med, 21-2)*

(426) *..., oek **bañan askotzat obetoago dakizkiten gauzak eta eginkizunak erri bakoitzera obeak litezkeanak**. (Med, 24)*

---

25. Nahiz esaldia, berez, izan litekeen, buru determinatugabe baten ingurukoa, usuzkoak Mogelenean.

- (427) ..., ateratzen du oetatik euneko ogeita bost (25%) zirala *berak ziyoten ez txertatutakoak*, *bañan ez zeukatenak besoetan txertuaren señaletik*, ... (Med, 48)
- (428) Ez da bada zalla *orrenbeste zabaldua dagoan kanale toki au eta beti lanean dagoana*, maiz gaxotzea, ... (Med, 66)
- (429) ..., eta bai eta ere *egiten dituan mugimentuak*, *beti gaitz modu jakindako bati dagozkionak*. (Med, 89)
- (430) Uste izan degu geiago eziñ luzatu geñeikela argibide au, zeñetan aditzera eman ditugun *umeak geienenbat izan oi dituen gaxorik ugarienak eta gurasoak askotan etxean ikusi bearke dituenak*; ... (Med, 94)
- (431) Zuzen da *Eskual Herria maithatu duen gizon bat*, *eta bere bizi guzia Eskuararen ikhasten eta erakusten iragan duena*, ... (HU, 1994, 176)
- (432) (Orai, nor da Lafont jauna? / Lafont jauna da) *miriku hoberenetarik bat*, *oraino berrogei urte ez dituen gizon jakintsun eta prestu bat*, *fortunaz, izaitzez eta ohorez ausarki duena*, *Frantzia eta Frantziaren gobernamentua, erran nahi baita Errepublikak, kartsuki maite dituena*, *eta eskaintzen darokuna*, *Baionan duen izaitze ederra utzirik, guatera gure intresen debekatzera eta, denbora berean, Frantziaren laguntzera gero eta gorago igaten*. (J.B. Elizanburu, *Piarres Adame*, EEE, 92)
- (433) ..., *itsasontzietan izaten den haga baten muturra*, *ingelesez "peak" deritzana*, *espainieraz "pena" edo "penol" esaten dena eta euskaraz ezagutzen ez dudana* ... (Sag, 60)
- (434) ..., *Berrondok darabilen itzulpen eredia eta teknika —segidan gainbegiratuko duguna*, hain zuzen— ... (GEg, 1985, 97)
- (435) Ala bukatu zan *egin nuen okerra*, *bizi naizen arte aaztuko etzaidana*. (Ai, 98)
- (436) ... *bere baitan hizkuntza eredu gisa dauzkan balio handiak (beste literatura tradizioetan hartan bezala nekez aurki daitezkeenak)*... (B. Oiartzabal, *Jakin*, 76, 1993, 87)
- (437) *Gaur egun bizkai hiztunek sentitzen duten lotsa* edo «*konplexua*», *sarritan euren hizkerakoa den guztiaren gaitzespena eroaten dituena*, ...
- (438) *Goizean liburutegiko berinaldean ezarria zen liburu ttipi horia*, *eta han iragaitean ikusi dutana eguerdi laurden gutitan*, etzen salgai. [Le petit livre jeune qui était exposé ce matin dans la vitrine de la librairie et que j'y ai vu en passant à midi moins le quart, n'était pas à vendre] (Orpustan 1997, 75-6)

#### 4.5.2. Erlatibo kateak eskuinetik soilik (≈nahi adina luze?)

- (439) Bazen *bat lanbide heziketan irakasle zena eta bazekiena kit batekin nola montatu irratia*. (J. Otamendi, *EEg*, 1997, VIII, 17, 32)
- (440) ... gaitz sortutzalle oetan badira *beste batzuek zeñai deitu diogun zapamorroak*, *eta jaio eta bizi litezkeanak naiz gorputzetik kanpoan nola bere barrunbean*; ... (Med, 10)
- (441) ..., eduki bear dala erremediatzat *edozein gauza gaxorik dagoanak artu al dezakeana*, *zeñaren bitartez berari osasuna biurtu litzaiokean*. (Med, 11)

- (442) Itzegiten ari geran gaitz onetan ere, badira **beste bere antzerako batzuek**, bañan bigunagoak, eta *indar gutxiagorekin azaldutzen diranak, zeñaren gañean esan bear ditugun itz batzuek ...* (Med, 30)
- (443) ..., baizikan **noizik beiñgo ostalaria**, *geroago eta gutxiagotan gure artean edukiko deguna txertua zabalduaz dijoan bezela, eta azkenik begien aurretik alde egin bear diguna gure aldetik jartzen ditugunean bear bezela onetarako bear diran errepariak.* (Med, 40)
- (444) ... izendatuaz **beste oitura txar eta galgarri bat** urdalleko eta gibelesko gaitz askoren sortzallea *gaurko egunean geiegi jende artean zabalduarik dagoana, eta batezere kalte izugarriak gazte jendea egiten dituana bihurtuaz azkenerako gizona ganadu baten antzera ...* (Med, 65)
- (445) ..., bañan badira **beste batzuek** ere *esandako leku oek bietatik jaiotzen diran zaiñ zurietan gertatzen diranak antz berean, eta ezagutzen diranak euskal-erriko jendearen artean aize txarraren izenarekin.* (Med., 71)
- (446) **Beste gauza bat nekazari eta langille jendearen artean ustez obetoago izateagatik askotan egiñ oi dutena eta egiñ bear ez dana**, da ... (Med, 83)
- (447) ...; bañan bada **beste gaitz esaten ari geran onen antzekoa isillago azaldutzen dana, zeña dan** *egiazko garrotilloa, umerik geienak berekiñ eramaten dituana eta pixka banaka eta pauso isillarekiñ etortzen dakiena;* ... (Med, 92)
- (448) Badu Euskalerrriak **ageri bat izan dezakean zarrena, beti berarekin duena, izena eman diona, baña ala ere ongi ezagutzen ez duena.** (Az, 1904, 454)
- (449) Baina Altzan baziran **gizonak**, bastante gañera, *pena zutenak eta orduko alkate eta aiuntamentuko kontzejal batzuegatik gaizki itzegiten zutenak.* (Ai, 83)
- (450) ... EEBBetan indarrean jarri zen narkotikoen gaineko **Harrison Legea**, «*droga psikoaktibo*» *izenekoak debekatzeko bidea zabaldu zuena*, eta *gero, oso urte gutxian, mundu guztira hedatuko zena.* (I. Segurola, *EEg*, 1998-III-12, 4)
- (451) Baziren ere lekukoak hala nola **erizain emaztea berrikitan aitortu duena eutanasia obratu zuela, ama familiako bat bere alaba autista hiltzera lagundu zuena poliziarai aitortu eta jujatua izan dena asisetan ...** (J. Haritxelhar, *Herria*, 1998-VII-1, 6)

Badirudi halako erlatibo kateek nahikoa erraz konpontzen dituztela goiko (422, 423) adibideek ezkerreko erlatiboan pilaketarekin eragiten zituzten ulermen arazoak.

#### 4.5.3. Erlatibo bikoitzak-eta ezkerretik pilatuak inoizka

Nolanahi, euskaraz betidanik aurkitu litezke izen ardatzaren aurretiko erlatibo bikoitzak ere, nahiz hauek, seguru asko, ohikoago izan erlatibo laburretan. Segidan adibide batzuk:

- (452) ...; eta *gañerako ganadu eta arbolariakin eta lurpetik azaltzen diran* [eta] *medikantzetako guttiz onak diran ur asko eta askorekin,* ... (Med, 15)
- (453) ...; eta baita ere *iñoiz arrobi edo modu ontako lantegietan egiñ oi izaten dituzten* [eta] *bildurtzeko diña diran beste batzuek.* (Med, 75)

(454) Gure xedea zen egun ere oraino mintzatzea, *gaixtaginek gure Frantzian eta Eskual Herri maitean jadanik hartua duten*, eta zorigaitzez gero eta gehiago hartzen ari **du ten nausitasunaz**. (HU, 1994, 175)

#### 4.6. Maiz esaldi nagusiko zenbait osagai tartekatuz izen ardatza eta aposizioaren artean

Zenbaitetan tartea izango da izen ardatza eta erlatibo aposizioaren artean. Maiz esaldi nagusiko aditza da elementu tartekatua, baina baita bestelakorik ere (ik. ere Oihartzabal, 1985, 120-121). Hala, esateko, segidako adibideetan (beste asko beste sailetako adibideen artean):

(455) **Baserri bat** SAN «Askotxu» *ixena eukana*. (Gor, 107)

(456) Sasô baten bisi xan **baserritxar bat** LEKITXO ONDUAN **es eukana** *eseren ikararik, ...* (Gor, 108)

(457) **Nor** BALIMADA **dakiena** 'dakien norbait baldin badago' (Orba.) (Cam, 477)

(458) Egaña hedadura handiko **bertsolaria** DA, GAINERA *aldaketa handiak egiten dituen* *doinuetan-eta*. (Xan, 41)

(459) Eta izango da ur corronteen aldean ipiñitaco **zua itza** BECELACOA, *bere demboran frutua emango duena*. (BOEG, 3213)

(460) Louis XIIc arra-eraiki zian **Eliza hanitz** MARIARI KONSEKRATURIK, *Higanautek errerik edo egotchiric izan zirenak; ...* (Int, 25)

(461) Egungo eskoletan **asko eta asko** IKHASTEN DA, *bertze orduz ikhasten ez ginuenik*. (HU, 1994, 186)

(462) Holako **gizon bat** BAZEN GURE DENBORAN, *denek ezagutzen ginuena* «Kokotz» *izengoitiarekin; ...* (Zub, 41)

(463) ... **orro itsusi eta gaitz bat** ADITZEN DU, *beharriak tutatzen dazkonak*. (Zub, 50) [ik. 4.9.3.]

(464) ...; batzutan hitz arrotz horiek, polliki sartzen direlarik, **gatz berezi bat** BADUTE, **bertzek ez luketena; ...** (Laf, 31)

(465) Gaur **nekazari gutxi** EGONGO DIRA, NERE IRITZIZ, *baserria besterena dutenak*. (Las, 51)

(466) **Itz oiek** DITUT OROIGARRI BEZELA GOGOAN JASORIK *iñoiz aztuko etzaizkidanak*. (Las, 56)

(467) Izan zen **bestarik**, SEGUR, *zuen amets bera egin zutenik, duela hiru-lau ilabete HERRI*Aren *urrezko ezteietako zozketa hartan*. (E. Larre, *Herria*, 1995-II-16, 1)

(468) **Toki bakar** BAITZEN HURA LONDRESEN *soldaduen desfileak ikusteko ikuspegi zuzena eskaintzen zuena* (JMA, 672; Zab)

(469) **Sistema bat** ASMATU BEHAR IZAN DA, JAKINA, *ohizko hizkuntzaren sintaxia hankaz gora jartzen duena, baina Matematikan ere euskaraz iharduteko aukera eman diguna*. (Sag, 40)

(470) Baina **lan hori** HOR DAGO, *urte luzeetan beste inork egingo ez duena, ...* (GEg, 1985, 104)

- (471) **Beste lorpen bat** ERE ESKURATU DUGU *nahiko positibotzat daukaguna* eta *hein batekotako heldutasunera geure esperientzia eraman duena*. (Gordailuko Taldea, *Senez*, 4, 1985, 92)
- (472) ... **eredu bat** FINKATU *guztiontzat balio behar zuena*. (A. Arejita, *Jakin*, 76, 1993, 67)
- (473) Bazeuden **bi milioi inguru**, NUEVA YORKEN, *inglesa ez zekitenak* eta katolikoak denak. (J. Mallea, *EEg*, 1995-IV-14, 32)
- (474) **Begirada azkar bat** ZUZENDU ZUEN ABA YAKUERENGANANTZ, *instant labor-labor bat iraun zuena*. (Ler, 1994, 195)
- (475) Igual **baserritar batzuk** IKUSTEN DITUT *igandero elizara joango direnak*, ... (P. Perurena, *EEg*, 1995-VIII-6, 40)

Euskaltzaindia 1999k (2.2.14.2) *aposizio*ko *perpaus erlatibo gibeleratuak* deitzen ditu halakoak (*alboko aposizio arrunten* aldean). Nik ez dut uste arrazoirik dagoenik halako bereizketarik egiteko bi sailon artean, besteak beste bi sailek modu bertsuan jokatzeko dutelako komuntadura kontuen inguruan ere nire ustez (ik. 4.9 atala), Euskaltzaindiak dioenez bestela.

#### 4.7. Aposizioa aditz jokatugabeekin ere (partizipioak eta beste)

Maiz ematen dira izen ardatz determinatuaren ondoko erlatiboak aditz jokatugabe bidez. Dela partizipio soiluz, *-tako/-(r)iko* atzizki bidez, edota *-t(z)eko* atzizkiaren bidez.

##### 4.7.1. Aposizioa partizipio soilaren bidez

Laffittek ere aipatzen du bere gramatika partizipio soilen erabilera apositibo hau (307§): «L'adjectif accompagné de complément n'est pas souvent épithète en basque actuel; il est très lourd de dire: **gizon urthez kargatu bat**, *un homme chargé d'ans*; on préfère supprimer l'enclave et employer la construction appositive: **gizon bat urthez kargatua**, ou bien **gizon bat urthez kargaturik**»; (ik. ere 486§). Segidan antzeko zenbait adibide:

- (476) **Gizon bat**, *zarraren lanerako ezindua*, semearen etxera yoan zan bizi izatera (JMA, 667; Az)
- (477) **Lau egun** ditut *lanik gabe geldituk* = tengo (hace) cuatro días que me quedé sin trabajo (G.) (Alz, 207)
- (478) ..., bezia, **Martin Saardi**, *Saline Saardinin sortua*, (banan herrumes hutsa, eaten, eta *Zokhoteeirat biltzen zena batzuetan*.) (Duh, 126)
- (479) ..., baina bagenuen **behi bat biziata**, (*zaldia ez zituena ikusten ahal*.) (Xan, 39)
- (480) ..., hareçaçu ekartcen derautçudan **ofrenda hau hitzez eguina çure laudorioen beçambat aipamenez** ... (Pou, 35)
- (481) Parrócoa assistitu bearduéna dá **testigobát autorizátua** *Elizaren nómbrean* ... (Cam, 474; Lizarraga Elkanokoa)
- (482) ... Karakoetxean bazen **aphez bat**, *Espanian sorthua*, ... (Eliz, 1889, 14)
- (483) ..., zoina deitzen baita **Laborantzaco liburua**, *duela mende erdi bat hurbil egina Duvoisin guarda kapitain zenak*. (HU, 1994, 179)



- (484) Baitire orotan bezala, eskuaran ere **hitz batzu** *nehork ezin garhaituak*; ... (HU, 1994, 201)
- (485) Huna beraz **gizon bat** *asko jasana* (JMA, 667; Et)
- (486) ... **hamar bat artikulu**, *Eskualduna* delako kazetan **agertuak**. (Laf, 16)
- (487) **Abade bat** *baltzez jantzia* buru dala (JMA, 667; Erk)
- (488) Arean be, daukagun **buztarria**, *inork ezarria*, kentzen ahalegin egin behar dogu (JMA, 667; Erk)
- (489) Aldamenean baitzeukan, ..., **Peru jatorra**, *Basarteko Unibertsitatean ikasia, mendiak hazi eta basoan hesia* (JMA, 667; Mitx)
- (490) Bada beste **demagogia mota bat** ere, *gure artean aski hedatua* (JMA, 667; Mitx)
- (491) Ohera ekar erazi zuen **bazkari onak**, *Crescia-ko ardo bikainez bustia*, gainera, ... (JMA, 667; Zab)
- (492) **Printzea** zela amestu zuen, *urrez estalia* (JMA, 668; Zab)
- (493) ..., **Bizkaiko txapelketako finala**, *Juan Mugartegik irabazia* (Amuriza, 1999, 13)

#### 4.7.2. -tako (-dako), -(r)iko *bidezko aposizio jokatugabea*

- (494) Nik baakaas **lengusuk**, *gudan araxe junde*, *Suantzes'en-da jaixotakuk* eta. (Gor, 103)
- (495) Beie nolabaitte bieldutako utxe, ttanttakuk eta beste **gañerako galdemodubek eta elkarrizketek, egindakuek** *tekniko ospetsubokin* ez zugubien eze erabaitzen, ... (Naf, I, [Etxarri], 19)
- (496) Gu gaude hemen **Sanjuanguak(,)** **irabasitakuak** *lau bandera kontxakuak* (Agirretxe, 148)
- (497) Oyec dira **nere asmoac** *misio santu onetan artutacoac*, ... (GeUr, 6)
- (498) ..., an eskola ori egin baiño lenago zan **maistra zar bat**, *moja izandakoa*-edo, ... (Laz, 51)
- (499) Berez **gizon indartsua ta sanoa** osasunez alegia. Baiña *lan asko egindakoa* ta ... (Las, 57)
- (500) Eta **haren izena** ezagutu zuenean, *mila gudutan hainbesteko fama hartutakoa*, izutu eta aldegin zuen (JMA, 667; Zab)
- (501) ..., baina badot **anai bat** *urte t'erdiko soldadutza eginikoa* (JMA, 667; Erk)

#### 4.7.3. -(z)eko *bidezko aposizio jokatugabea (determinatuta edo gabe)*

- (502) Ni(k)pe **intentziñue** dakotzut **emotekue**. Se neu(k) pere **intentziñue** okin'dxot **ostutekue**, ... (Gor, 95)
- (503) Egia erran, Joana Albretekoaren eta Joanes Leizarragaren **entseguak** *protestantismoa hedatzeko Euskal Herrietan(,)* ez zutela arrakasta haundirik izan jakina da eta ... (Xarriton, 2)



#### 4.8. Aposizioa mugatzaileaz bestelako determinantez, burua errepikatuz, edo sinonimoz

Maizenik, izen ardatz determinatuaren ondoretiko aposizioek, substantibaturik, artikulua, mugatzaile arrunta, jaso ohi dute, eta kasuan beste erlazio atzizkiren bat honi erantsita. Hala moduzkoak dira orain arte ikusi ditugun adibide gehientsuenak. Zenbaitetan, ordea, mugatzaile horren ordeaz, agertu liteke beste determinanterik ere, nolabaiteko independentzia lexikoa, edo grafikoa, erakutsi lezaketenak *-(e)n* loturarekiko. Maizenik erakusleak, edota *bat* determinantea, nahiz besterik ere (*batzuk*, *guztiak*, ...). Segidako adibideen antzekoak:

- (504) Ekharri zuen eta sukaldian zelarik agertu zuen **mokanes zeda**, *errege seme harek eman zion HURA*. (W, 21)
- (505) oañ **maestrak eta**, ..., **zuek or zailzaten** οικ, ... (Fraile, 131)
- (506) ..., nik sei urte ta nere atzetikan **beste aizpa**, **au Jexuxa**, *tintorerin eon dan AU*, ... (Orio, 194).
- (507) Edo hil dela norbait, eta **pozik daoen jendea**, utzi dizkion gauzengatik, baño *han nolabait beltzez joaten den HURA*. (S, 304)
- (508) Eta horri erasten badiogu gainera, ba ..., irakaslegoa erdalduna mantendu egingo dela, ondorengo 10 urtetan ere, garantizatuta dago **porrota**, *azken 10 urte hauetan lortu den BERA*. (ELI, 222)
- (509) Ordun, irakasle naizen partetik, esan nahi nuke, lehendabiziko pausoa, urratsa, guztion **elkartasun hori**, zuk aipatu duzun, *ongi aipatu duzun HORI* aurrera eramateko, errespetatu behar ditugu ... (KE, 32)
- (510) ..., eta horra nun duzun egina **ur usain ona**, *emaztekiak derabiltzan HETARIK*. (Et, 71)
- (511) ..., gelditu zirala bizi izaten batzuek Ebroko erriyoz **aruzko aldean gaur erdaldunen lurtzat ezagutzen degun ARTAN** eta besteak esandako erriyo ortzaz unuztik, ... (Med, 16)
- (512) ..., eta erabilliaz aoan **beste zenbait garbigarri artarako egiñak egoten diran AEK**. (Med, 62)
- (513) Hori da **problema sakon bat**, *luzera doian BAT*. (KR, 43)
- (514) Ordea **ezkondu batek**, *emazte ederra eta prestua duen BATEK*, hura utzirik, har dezala itsusi bat, ... (Ax, 609, 405)

Esaldioak ez dira horregatik gutxiago aposizio, mugatzaile arrunta daramatenak baino.

##### 4.8.1. Aposizioa bigarren buru nominal batez

Beste zenbaitetan gertatzen da, ez bakarrik determinante berri bat agertzea, baizik eta, erlatiboaren aurretik emaniko izen ardatz hura bera errepikatzea ondoretik, determinante ber- edo desberdinekin. Errepika propioagoa da ahozko hizkerarena, idatzizkoarena baino (baina ik. 520):

- (515) Emon dotzet yaten **TXAKURRERI ekar dosun TXAKURRERI** (Gam, Gatika, 118-120)
- (516) Nik emen ortxe **MENDIÑ, kastillo daon MENDIÑ** esetu dot (Gam, Gatika, 118-120)

- (517) Beraz, momentu honetan bertan ere, badaukagu nahiko zama bizkarraren gainean, **jarri ditugun HELBURUAK**, *eta laburregiak direla diruditen HELBURU HOIEK*, betetzeko. (ELZ, 342)
- (518) Egon san etze baten **ASTO BAT**, **ASTO SARRA**, *esetako be balijo estaben* **ASTUE**. (Gor, 89)
- (519) ... **ALARDIARENA**, *amaberjinan egunian egitten den* **ALARDIARENA**. (Tx. Sagarzazu, in Hualde, 121).
- (520) **ARTEGATASUN POZGARRIA** dakusgu gaur euskotar askoren adimen eta biotzetan; *yakin, ikasi, aztertu ta beren Erriaren berreneraño sakondu naiak dakarkieten* **ARTEGATASUNA**. (J. Zinkunegi, 12)
- Beste batzuetan izen ardatz bera errepikatu beharrean, haren sinonimo edo testuinguruan baliokide den bat eman liteke. Fenomenoa orduan idatzizko hizkeran ere ezaguna genuke:<sup>26</sup>
- (521) **ORI etor dan GIXONA** kanpoko da (Markaida; Gaminde, 1993, 106-9)
- (522) Eta bizkitartean, zinez «Pobren Ama» zen **KATTIN**, **aiphatu dugun ARROKIKO ETXETIARSA XAHARRA**. (Et, 51)
- (523) Aita Mitxelenak gogoan izan ditu, bai, **EUSKALDUN XEE TA UMIL OIK**, “**EUSKALDUN-UTS**” **OIK**, *euskera beste izkuntzarik ezakiten* **GURE ANAI-MAITEOK**. (Altube, *Euzko Gogoa*, 1954, 102)
- (524) Beste **LEKU BAT** *ijitoak asko* **egoten ziran TOKIA** ... (J.R. Erauskin, 220)
- (525) Herri hatan bazan **ABERATS BAT** *negozio asko* **zituan GIZONA** (JMA, 672; Bil)
- (526) Nik ez det iñoiz **INOR** ikusi, *baserriak erabat pozturik edo bereganaturik* **daukan NEKAZARIRIK**. (Las, 52)
- (527) Gaztea **IREN BAT** zen, *haurretako tonu meheko iharduna bizitza osoan* **gordetzen duten KANTARI BAT**. (Ler, 1994, 193)
- (528) Lafont jauna da **miriku hoberenatarik bat**, *oraino berrogei urte ez dituen gizon jakintsun eta prestu bat*,... (J.B. Elizanburu, *Piarres Adame*, EEE, 92)

Hala moduzko adibidetzat har litezke segidako inesiboak ere:

- (529) len **AMEN** *kuartue* **dauen LEKUEN** ba sera, bodegie egon san (Gam, Bakio, 276)
- (530) len ba burriñe itesan or **ERROTAN** *errotea* **ixen san LEKUEN** (Gam, Zamudio, 397)

#### 4.9. Kasu korrespondentzia izen ardatza eta aposizioaren artean

Zalantza gabe, erlatibo aposatua daraman izen ardatz determinatuaren kasurik arruntena absolutiboa da,<sup>27</sup> mugagabe edo mugatu singular edo pluralean. Aposizioa kasu berean eman ohi da, singular edo pluralean (ez jada muga-gabean). Badira, hala ere, tarteka bestelako kasuetan emaniko izen ardatz aposiziodunak. Aposizio hauek bi eratara agertu litezke.

26. Guk halakoak, hala ere, gure estatistiketan ez ditugu kontuan hartu aposizio gisa.

27. Segur aski hori delako berez, diskurtsuan, osagai berrien ohiko aurkezpen egitura.

#### 4.9.1. Izen ardatzaren kasua errepikatuz

Hori bide da joera zabalduena, gramatikek hobetsia (De Rijk, 1972, 168 hh.; Biguri, 1994, 70; IVAP-HAEE, 1994, 142-143; Euskaltzaindia, 1999, 213) segidako adibideetan bezalatsu:

- (531) Baiña saati entzu'benin elixaurreko **lagunak**, *buelta bat emo'benak bakarrik* etxea jun'tziñ billurtute. (Gor, 101)
- (532) Ordea **ezkondu batek**, *emazte ederra eta prestua duen batek*, hura utzirik, har dezala itsusi bat, ... (Ax, 405)
- (533) Emazteer dago, aldiz, **lili bakanen** biltzea, hala nola *violette, tubéreuse, cassie, jasmín deritzatenen*. (Et, 69)
- (534) ... , gelditu zirala bizi izaten batzuek Ebroko erriyoz **aruzko aldean gaur erdaldunen lurtzat ezagutzen degun artan** ... (Med, 16)
- (535) Gañera **ume eta osasuna biguneko zenbait jendek askotan bañuak ematen dituen mudantzak eziñ igaroko litukenak**, ... (Med, 98)
- (536) Gure **amak aurten 96 urte izango dituenak**, hamalau seme-alaba izan zizkian. (J. Mallea, *EEg*, 1995-IV-14, 32)
- (537) ..., **lehen kapitulura** mugatuko naiz, *hain zuzen joeraz gehien interesa zaidanera*. (M. Alberdi, *EEg*, 1998-XI-10, 3)

#### 4.9.2. Aposizioa absolutibo singular edo pluralean emanez, kasua errepikatu gabe

Ez da, ordea, aurreko aukera hori euskaldunok erabili bakarra. Bigarrena da aposizioa nominatibo soilean ematea, singular edo pluralean, kasurik egin gabe ardatzak erakusten duen kasu atzizkiari. Biguri 1994k erabilera hau «gaur egunekotzat» jotzen du soilik; eta Euskaltzaindia 1999k «bereziki ahozko euskaraz» edota «olerkari zenbaitek» erabilia edota *erlatibo gibeleratu*en arteko joeratzat; ez du tradiziozkotzat jotzen eta ez du gomendatzen *idazketa jasoetan bereziki*. Nik ez daukat horren garbi, ez gaur egungo joera denik, ez ahozko hizkerakoa denik soilik, nahiz beharbada honetan samurrago aurkitu. Euskaltzaindia 1999k berak jasotzen ditu komunztadura gabeko aposizio idatzi ez-gibeleratu zenbaiten adibideak:

- (538) Ixtorio sail bat ere eta hoberenetarik, badut hartua, **lauetan hogoita bi urteko xahar maite baten** GANIK, *Saran sortua, Zugarramurdiin zagona orduan* (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, Aintzin solasa, 6)
- (539) **Gure Jainkoak**, *beti, xuxen dabilana*, ongi gidatzen baitu, ... (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, 16)
- (540) Hunek dote eraman **Philip ederrari / Frantziako tronuan behar zena jarri** (Hiribarren, ap. Euskaltzaindia 1999, 214)
- Ariztiak berak du antzeko beste bat *Amattoren uzta*-ren *Aintzin solasean*:
- (541) Bertze batzu, **Itsasuko artzain bati** hartuak, *bere bizi guzia bere artaldearen erdian ereman duena, uda Itsasun, mendiz mendi, bere etxea elizatik hiru orenen bidean; eta negua, Saran, ainitz urtez*. (4)

Segidan esku artean darabildan zenbait adibide, ahozko (542-550) eta idatzizko (551-567):

- (542) **Jaio nitzan basarriyan**, *Arrokaundieta deitzen dana*. (Agirretxe, 147)
- (543) Eta **ikastola haunditan**, hau da, *lehen zituztenak*, 5, e ..., 5 gela, kurso bakoitzeko, asko dira 4etara jetxi direnak ... (ELIt, 230)
- (544) Nik, Joxe Mari Zeberioek esan dituen **hitzei**, ba ..., bueno, deigarriak, eta nolabait, harritzekoa baita ere, **adierazten dutenak**, *ba ..., Eusko Alderdi Jeltzalearen barnean dauden kontraesanak*. (ELI, 125)
- (545) Eta flexibilitatea eskatzen dugunean, Fermin, hain zuzen **artikulo hortan**, **zuk esan dezun artikulo hori**, e?, Jaurlaritzan esku dago dena. (ELA, 97)
- (546) Ni testigu naiz. Lekuko naiz. Aurreko **legegintzaldian**, *90ean bukatu zana*, hauteskunde berriak egin, gobernu berri bat egintzan. (ELGu, 108)
- (547) **Nork** lortuko du gaitasun hori gaztelaniaz, *jatorriz euskalduna dana*, eta *eskolan inoiz gaztelaniazko gai bat ematen ez duna?* (ELGo, 300)
- (548) Da “**Liberta**”κ, *ni on nitzen barkue*, euki eban “bandera de combate” (EHHA, 1.28.9)
- (549) (Zerez beteko zenuke zakua?) **Janariz eta erremedioz**, *sendatzeko behar direnak*. (M.J. Minaberri, *EEg*, 1998-I-4, 32)
- (550) Orduan, ik **lenbiziko aldiz kantatu dekena**, Saibururekin? (Laz, 52) [anakoluto eta guzti]
- (551) ikhussi diat baý ene **pobluaren** aflicçionea, *Ejiptuan déna*: ... (Ur, 96)
- (552) ..., aldi baten jarraitu ezquero Jesusi, igues eguinic bera ganic, ta eguinic **Satanasen** Vandera-pecoa, **ondu zana betico Infermuan!** (Añ, 1803, 25)
- (553) Orduan Kaleb eta Josue beste **amarrekin Kanaan izan ziranak**, esan oiek gezurtatu nai izan zituzten. (Lard; ap. OEH, V, 90a)
- (554) ..., zeñatatik lendabizi izendatu bear diranak diran birikak, daudenak beren barrunbe guztia kanale txiki batzuez beteak, eta oek berriz beste eziñ konta ala **zaiñ txikiz** estaliak **daramatenak gorputz guztiko odola leku aetara**; ... (Med, 51)
- (555) ..., emendikan dator zallagoa izatea berari antz ematea eta baliyatu bear izatea **zenbait señale moduz**, *gizonak bere itzarekin bear ez dituanak adierazotzeko zer eta nola gertatzen zaion danean ondoeza*. (Med, 88)
- (556) ...; eta irugarrenge, beste **zenbait gaxo edo gaitzetan** zeñak emen eziñ guk bakoitza izendatu giñezken eta **gelditzen diranak medikuaren eginkizunetzat**, nola diran, ... (Med, 97)
- (557) ..., eta beste erremedioen laguntzalle bezela, edo **beste modu askoz esatea medikuari dagozkionak galdetutzen zaionean gauza oen gañean**. (Med, 97-8)
- (558) ..., denak **aberats okhituez** betheak, eta *sosa xahutzen dutenetarik* ahurtaka barreatuz beren yostakarietan, ... (Zub, 53)
- (559) Eskerrik aunitz **zure eskutitza gatik Txampain-erri zoriontsutik igorri didazuna**. (Mir, *Gutunak*, 151)

- (560) Hegoaldeko Euskaldunak **erresuma arrotz baten** menpean zeuden, *Europako harroena zena*. (J. Mirande, *Herri saindu eta demokratikoaren parabola*, in *Obra osoa*, I, 453, Hiria, 1999)
- (561) Nola ez pentsa alabaina **hainbeste irakurleri?** *baitira beti euskal irakurgaiaren beha eta haiduru daudenak astetik aстера, bai adinekoak eta bai gazteak, ...* (E. Larre, *Herria*, 1995-VIII-17, 1)
- (562)... auzoko gizon bat, ..., nola egoten zan, beeragoko **baserrikoa**, *Atxotei etxea esaten ziena*, ... (Laz, 42)
- (563) ..., ta gero **beste txistulari batek**, *Migel Mari izena zuana*, ... (Laz, 54)
- (564) Honek **ilobari** egin zion enkargua, *artean 15 urtetako mutikoskorra zena*. (GEg, 1985, 99)
- (565) Lehenengo aldiz entzun zuen europar adituen **lanen** berri, ... *budismoaren ehun Leku Sakratuak aurkitu zituztenak*. (Kim, R. Kipling; ap. Biguri, 1994, 63)
- (566) Bitartean **kapitainak**, *bularraldea eta poltsikoak puztu-puztu eginda ikusi nuena*, ... (Altxor uhartea, R.L. Stevenson; ap. Biguri, 1994, 63)
- (567) Galtza bakeroak exigitu nizkion **amari**, *azkenean amore eman zuena aita haserretu arren ...* (M. Hernandez, 1994, 5)

Komunztadurarik gabeko adibideotan, beharbada pausa nabariagoa izan liteke izen ardatza eta aposizioaren artean, eta seguru asko halako aposizioak errazago aurkitu litezke esaldien amaieran, edo bederen aditz nagusiaren ondoretik, izen ardatzaren kasu atzizkiak jada bere eginkizuna betea duenean (nahiz denetik aurkitu litekeen, goiko adibideen artean bezala). Hala ere, nik esango nuke, hiztunak efektu desberdinak eragiten dituela kasu batean eta bestean. Aposizioa absolutiboan emanik, atentzioa sintagma honetara doa, esaldia ahazturik. Komunztadurarekin, esaldiaren osotasuna da indartua. Azterketa zehatzago batek bakarrik eman liezaguke erabileraren kasuistika. Gehitxo da beste gabe bigarren aukera hau gaitzestea.<sup>28</sup>

#### 4.9.2.1. Aditz jokatugabe bidezko aposizioetan ere

Komunztadura gabetia bera gertatu liteke aposizio jokatugabeekin ere, segidakoan bezala:

- (568) Ohera ekar erazi zuen **bazkari onak**, *Crescia-ko ardo bikainez bustia*, gainera, ... (JMA, 667; Zab)

28. Bestela, Euskaltzaindiaren *Komunztadura aposizioetan* 109. arauan gertatua gertatu liteke berriro. Araua edo gomendioa beti komunztadura egitea izaki, bertan leku eta arreta handiagoa eskaini beharrean gertatzen da gomendioz kanpoko salbuespenari: «lekkotasun urriagoa duena tradizioan», «erabileria lasaiagoa» suposatzen duelakoan, «perpauaren egituratik aparte erantsitako tartekia edo parentesi moduko zerbait delakoan», «areago euskara mintzatuan erabiltzen delako». Zergatik ez orduan bere lekua aitortu egiturari, baztertu ordez?

#### 4.9.3. Komunztadura nahasteak

Nolanahi, nahasteak ere nahikoa ohikoak dira: aposizoaren atzizkia erlatibozko aditzaren numeroari moldatuz izen ardatzarena ahazturik; atzizkian erlatibozko aditzaren ergatibotasuna adieraziz, nahiz izen ardatza absolutiboa izan; ... Anakoluto baztergarriak denak, nahiz interesgarriak gure hizkuntz prozesatze bideen ikerketan. Hala moduzkoak izan litezke segidako adibideak, ohikoagoak ahozko hizkeran:

(569) **Emakumia**, *continuo eaten dunak* (Fraile, 131)

(570) **eurrek** autsi **karri duziena** (EAEL 267, Ziganda, Naf. Gar.)

(571) ..., paratzen det neré escutic Erreguearen aldamenean **eguitura BAT niri zorcó dizquidanac beré hónra ta ondasúnac**, ... (Larr, 1990, 83)

(572) **Lagun BAT** neukan **elkarrekin jartzen ginenak pupitrean**. (G. Etxaniz, *EEg*, 1995-VIII-18, 32)

(573) ... **orro itsusi eta gaitz BAT** aditzen du, **beharriak tutatzen dazkonak**. (Zub, 50)

Antzeko komunztadura arazoak suma genitzake beste zenbait adibidetan ere:

(574) ..., eta etortzen dira ondorenean len izendatutako saltoak eta asnase estua, eta gañera **beste gauza ASKO guri emen esatea ez DAGOKIGUNAK**, ... (Med., 1443, 67)<sup>29</sup>

(575) Sansebastianak benetan **fiesta zaharrak** direlako, eta **sustrai handiak DAUZKANAK Donostian**. (R. Labaien, *EEg*, 1995-VIII-13, 24)<sup>30</sup>

(576) Azken batean **enpresayuak** behar dia, ta **enpresan arriskatuko dana**. (KR, 246)<sup>31</sup>

(577) Horrela, baziran **lekuak geienean ijitoak egoten zirana**. (J.R. Erauskin, 213)

Kardaberazek ere antzeko komunztadura arazoak erakusten du segidako erlatibo librean, *Eusqueraren berri onac*-eko lehen esaldia (ik. ere 119 esaldia Gerrikorena):

(578) *Erroman, Erriaren errenta andi, eta fama are andiagorequin, ondo itzeguiten icasteco, edo Eloquenciaren Escolac aurreneco idiqui cituenac, MARCO FABIO QUINTILIANO izan zan*.

#### 4.10. -(e)na... / -(e)la atzizkien nahastea

-(e)na... / -(e)la atzizkien nahastea erlatibozko egituretan etengabe ari da zabaltzen gazteen artean, eta arrotz egiten zaigu. Nahastea, ordea, uste baino zaharragoa izan liteke, Mikoletaren segidakoak bezalako adibideen bistara:

(579) **Esaneroeala legues d. Juan Manuelec** ... (Mik, 26) [*Esaneroean legues* edo eman beharrean]

(580) **Axechu oz bat** sarsayten da ventanatic, **ebaguiten dauela surrac**. (Mik, 22)<sup>32</sup>

29. Nahastea, beharbada, aditzaren komunztadura pluralaren falta da (*dagozkigunak*).

30. Nahastea da, beharbada, aditzaren komunztadura pluralaren falta (*dauzkatena*).

31. Izen ardatza pluralean eman arren, aposizioa singularizatu egiten da.

32.. Bigarren esaldia interpreta liteke moduzko bezala, -(e)la(rik) atzizki bidezko. Interpretazio bera zabal dakioke beharbada zenbait erlatibo aposiziori.

Antzekoak izan litezke segidakoen itxurako adibideak, gaurko nahasten erakusgarri:

(581) Ta orduan heldu da **momentu bat**, *giza harreman guztiak zanpaldutugula*. (KE, 21)

(582) Azkenik, esanaz badirala **beste gaxo batzuek iritxi gabetanik tiputzaren gogortasunera**, **izan ohi dutela beren jarlekua urdalle eta esteetan**, ... (Med, 31) [esanaz aditzak eragindako nahastea?]

(583) ... ikastoletan ikasitako berrogeiren bat ikaslek parte hartu zuen, euren testigantzekin antolatzaileen kezkarri forma emanez, hots Iruñean **euskaldun anitz** direla *hizkuntza non eta norekin erabili ez dakitela*. (EEg, 2000-X-29, 22) [oso zalantzarikoa interpretazio modala eduki lezakeena]

*Oiartzungo hizkera* liburuan I. eta A. Frailek aurkezten dituzte halako adibideak (1996, 132): «-LA atzizki bidez osatutako erlatiboak / Erlatibo mota hauetan nabaria litzateke gazteleraren eragina. Gazteengan ezezik, zaharregian ere harrapatu dugun esamoldea genuke:

(584) atatzem bada **malda aundi xamarra dola urez aziya**

(585) ta zeon **alambre bat** bezela *andikam pasatzen zela korrontia*

(586) toxa da (...) nola sango izut nik, **kaja bat** ola in, orrea, *bolantia dula geo bueltan ixteko*»

Caminok ere jasotzen ditu zenbait adibide, nahiz ez Aezkoa bertakoak (1997, 481):

(587) **Katarroak** izaten ditut *laister gaten direla*

(588) **Lañoak** dira *laister pasatzen dirala*

Bitxiagoa Caminoren hurrengoa, *-(e)la* atzizkia emanez izen ardatzaren aurretik:

(589) *Ogei milla pezeta egin zuela beia* erosi nuen

Orpustanek ere aipatzen du nahaste aukera, *-(e)la* atzizki modalaren inguru (1997, 84): «elle [la relative] peut aussi dans certains cas où le sens de l'explicative se rapproche de celui d'une circonstancielle, être marquée par le suffixe subordonnant "completif" *-la*: /

(590) Goizean **Holakoa** ikusi dut *liburutegia ideki beha zagola* (J'ai vu ce matin Untel qui attendait l'ouverture de la librairie)»

Bikoitzasun hori beste zenbait kasutan ere sumatu liteke. Hala nola *seinale* bezalako izen ardatz baten aposizioan (591); iragan denbora epeak aipatzean (592); edota bestela (593):

(591) a. **Seinale etorri denA**

b. **Seinale etorri deLA**

(592) a. Bada **urte bete zutaz ezer ez dakidANA**

b. Bada **urte bete zutaz ezer ez dakidALA**



(593) a. Han dator **mutil bat**, *buruan txapela duena*

b. Han dator **mutil bat**, *buruan txapela duela*

#### 4.11. Subjuntiboak aposizioan

Zenbaitetan subjuntiboazko esaldiak erabili ohi dira zenbait izen sintagmaren ezaugarriak azaltzeko (bereziki helburuzkoak). Hauek izenaren aurretik eman daitezke, edo, maizago seguru asko, ondoretik, aposizioan. Segidakoen antzekoak (gure estatistiketan kontuan hartu gabeak):

(594) ... agintariak ipintzeko agindu ezkeroztik elizetan, eskoletan, burni bireetako eserleketan eta jendea pillaturik egon bear duan leku guzietan, bear bezelako **karkax ontziak bota ditzaten** *oek bertara, ...* (Med, 25)

(595) ..., bertako agintariak ipintzen dutela begiramentu aundia puntu onetan, **alegiñak** egiñaz gertatzen danean, **ez dediñ zabaldu** *beste lekuetara gaitz pegakorrik azaltzen dan artatik, ...* (Med, 21)

(596) ..., eta **zerbait** aurreratua edukiko degu **ez ditzaten egin** *aekegin oi dituzten kalteak iñoiz, gelditu diralako gure artean gure bizilagun bezela naiz dala mendi-errietan eta bai eta ere itxas-baztarrean daudenetan.* (Med, 23)

(597) Ene semea, **premia** da **jakin dezagun** *lanak zer urtheko tenoretan egin behar diren.* (Dv, 119)

##### 4.11.1. Amoreakatik + subjuntiboak aposizioan

Helburuzko esaldiak indartzeko erabilitako partikula hau maiz eman ohi da mendeko esaldiaren hasieran ere. Orduan, aposizioan jasotzen du subjuntiboazko esaldia (ik. OEH):

(598) ..., eta **amoreakatik** *arima garbienek probetxuekin irakur ahal dezaten Axularren liburu ederra, ...* (Intxauspe, ap. OEH, II, 41)

### 5. Eranskina: **-(e)n... atzizki bidezko erlatiboak, izen ardatz determinatuaren eskuinetik emanak**

#### 5.1. Medikantza

##### 5.1.1. **-(e)n... bidezko erlatibo hautsigabeak**

1. (0)<sup>33</sup> **Beste gauza bat** nekazari eta langille jendearen artean ustez obetoago izateagatik askotan egiñ oi dutena eta **egiñ bear ez dana**, da puntutikan puntura aurrera egiten dagoan emakumeari ematea dala teia, edo kafia edo salda garbia, ... (1831, 83)

---

33. Parentesi arteko zenbakiak erlatiboazko esaldiaren osagarri kopurua adierazten du. Lerro hasierako zenbakiak zenbatzen ditu adibideak. Adibidearen ondoren bi zenbaki ematen dira parentesi artean. Bigarrenak adierazten du liburuko orrialdea. Lehendabizikoa kontrol zenbakia baino ez da. Adibide guztietan saiatu naiz ahalik eta testuinguru zabalena ematen, erlatiboazko esaldia (eta esaldi nagusia) behar bezala ulertua izan dadin jatorrizko testura joan beharrik gabe. Zenbaitetan, hala ere, artean ilun gerta liteke esaldi osoaren esanahia, hau hobeto ulertzeko eman beharreko testuingurua luzeegi litzatekeelako. Adibideetan, erlatiboazko esaldiko aditza, **-(e)n** erlazio atzizkia eta erlatiboazko esaldiaren burua, beltzaxketan eman dira; erlatiboazko esaldiaren osagaiak, aldiz, kurtsiban, hala esaldiaren aurretik, nola ondoretik.



2. (1) Itzegiten ari geran gaitz onetan ere, badira **beste bere antzerako batzuek**, bañan bigunagoak, *eta indar gutxiagorekin azaldutzen diranak*, zeñaren gañean esan bear ditugun itz batzuek ... (578, 30)
3. (1) Nolabait ere **buruko naspillatze eta bizkarmuñeko zañetako dardarak** *gorputz guzian azaltzen diranak*, alkarganatzen diranean berotasun aundiarekin, adierazotzera ematen digute... (706, 35)
4. (1) ..., ikusten degunean **ume bat zerbait berotasun daukana**, ... (798, 39)
5. (1) Azkenik gaitz modu oetan eduki bear da garbitasun aundia eta ipiñi erreparo guztiak ez ditezen okertu, eta gaxo daudenak ez ditzaten pasatu **zenbait naigabe gaitz oetan sortu litezkeanak** emanik noizik beiñ bañu epelak. (884, 43)
6. (1) ..., eta legortzen danean guztia, erortzen da ogeitik ogeita bost-garren egunaren inguruan utziaz **señale biribill bat beti ezagutu oi dana**. (979, 49)
7. (1) Aoko erramiantetako aje oek izan oi dira urdalleko gaitzik askoren sortzalleak eta baita ere ao barruan bertan azaltzen diran batzuenak, nola diran **aosapaieko eta oietako aundidurak iñoiz zornatzen diranak**; ... (1305, 63)
8. (1) ..., bada orduan egiten dituan indarrak alferrikakoak dira umea kanporatzeko eta geroagoan emakumeak berak sentitutzen duanean **indargurea berez datorkiona**, orduan bai lagundu bear du lanbide onetan, ... (1816, 83)
9. (1) ..., bada gurasoentzat ona da jakitea **zenbait gauza umeai dagozkienak**, ... (1918, 87)
10. (1) ...; bañan bada **beste gaitz esaten ari geran onen antzekoa isillago azaldutzen dana**, zeña dan egiazko garrotilloa, ... (2030, 92)
11. (1) ...; au da gaitz bildurgarri eta izugarria zergatikan **biziro ume gutxi** sendatuzten diran **berak jotzen dituanak**; ... (2034, 92)
12. (1) Badaurik artu bear dan edo ez bañua, da **beste galdera jende askok egiñ oi duana**, zeñari erantzungo diogun esanaz ... (2203, 99)
13. (1) ..., beti izango dala **bañua** bear bezelakoagoa **maria goran artutzen dana** itxasoa jatxiaz dijoanean bañan. (2229, 100)
14. (1) ... eta **bañua onela artutzen dana** izan oi da gogorragoa eta geienentzat bai eta obeagoa ere, ... (2279, 102)
15. (2) Bertan berean esaten degun bezela gure asmoa ez da besterik izandu, ez bada erriko jendeai erakustea **zenbait gaxo edo gaitz maizen eta ugarien sortutzen diranak**, zer nolakoak izan oi diran ... (7, 5)
16. (2) Bertatik ikusten degu badirala gaitzari sortuera eman lezaiotekean gauza oetan **batzuek gorputzetik kanpora daudenak** eta besteak berriz gorputzaren barruan bertan arkitzen diranak. (88, 9)
17. (2) ..., guri ez dagokigu emen esatea ez bada, eduki bear dala erremediatzat **edozein gauza gaxorik dagoanak artu al dezakeana**, zeñaren bitartez berari osasuna biurtu litzaiokean. (134, 11)
18. (2) ..., beñere alde egiñ gabe daudela gaitz pegakor eta txarrik asko, nola diran elkorri, napparrei, biriketako gaxo, eta **beste onelako zenbait emen izendatzea ez dagokigunak**, etxeetan egiten ez diralako bear diran garbitasunak ... (341, 21)
19. (2) ... ez zaiola artutzen aintzakotzat beste goragoan dauden agintariengandik, **oek bañan askotzat obetoago dakizkiten gauzak eta eginkizunak erri bakoitzerako obeak litezkeanak**. (435, 24)
20. (2) ...; botatzen da oetara **libra bat jaboe arropak garbitzen erabilli oi dana**, eta bi kutxara petroliyo, ... (531, 27)

21. (2) ..., bada onen iltzalleetatik bi lendabizikoenak dira **aizea eta argia**, *esandako gela txiki aetan egon eziñ litezkeanak*. (645, 32)
22. (2) ...; eta batak eta besteak beti eraozten diote azaltzen diran gaxoari **okertasun eta arrasku aundiagoa beti kontuan eduki bear deguna**. (828, 40)
23. (2) ... zeña dan **petxuko katarroa edo ez tul katarroaren izenarekin ezagutzen deguna**. (1094, 53)
24. (2) ...; bañan denbora gutxi barru azaltzen dira **karkaxak**, lendabizi argi antzekoak *eta geroagoan berriz loditzen diranak*. (1110, 54)
25. (2) ..., eta erabilliaz aoan **beste zenbait garbigarri artarako egiñak egoten diran aek**. (1312, 62)
26. (2) Ez da bada zalla orrenbeste zabalduta dagoan **kanale toki au eta beti lanean dagoana**, maiz gaxotzea, ... (1423, 66)
27. (2) Azkenik **beste gaxo bat** ere badaukagu *emen izendatzea tokatzen zaiona* zeña dan ... (1517, 71)
28. (2) ..., zergatik umearen gorputzak daukan **lan bat** esku arte (zeña dan azitzea) *gizonak egiña daukana*, ... (1925, 87)
29. (2) Eta aiñbesteraño da gauza au onela, non badiran **gaxoak bakar-bakarrrik umeak izan oi dituanak**, ... (1929, 87-8)
30. (2) ... **norbait** ikusi balu bezela *zer edo zer gauza txarra egin nai diona*, ... (1975, 89)
31. (2) **Gorputz guziko dardarak iñoiz umeak izan oi dituanak**, dira ere beste gaxo izaldi bat geiena gurasoak bildurtutzen dituana, ... (2000, 91)
32. (2) ... ; bañan bada beste gaitz esaten ari geran onen antzekoa isillago azaldutzen dana, zeña dan **egiazko garrotilloa**, umerik geienak berekiñ eramaten dituana *eta pixka banaka eta pauso isillarekiñ etortzen dakiena*; ... (2033, 92)
33. (2) ..., bada beste gañerako erremedioakin bezela gorde bear dira bañuakin ere **zenbait kontu modu oraiñ esatera goazenak**. (2193, 99)
34. (2) ..., bada sortu liteke onetatik buruko odol kolpe bat edo **beste edozeiñ gauza oker iñork gutxienean uste izan leikeana**. (2299, 103)
35. (3) Bertatik ikusten degu badirala gaitzari sortuera eman lezaiotekean gauza oetan batzuek gorputzetik kanpora daudenak eta **besteak berriz gorputzaren barruan bertan arkitzen diranak**. (89, 9)
36. (3) ... eta iberoak zeñak izan ziran Españiako lurreen aurrenengo bizi izatera etorri ziran jendeak, gelditu zirala bizi izaten batzuek **Ebroko erriyoz aruzko aldean gaur erdaldunen lurtzat ezagutzen degun artan** eta besteak esandako erriyo ortzaz unuztik, ... (258, 16)
37. (3) Gizon jakintsu oek berak itzegiten dutenean zer nolakoak ziran euskaldun aen izaera moduak esaten dute zirala **alperkeriaren etsaiak, nekea zer zan ez zekitenak**, ... (303, 18)
38. (3) ... , goazen ikustera zeñ izan ote litekean eta nolakoak euskal-errian eta batez ere baserrietan tiputzari sortuera eman lezaioketen gauza moduak, *lenago zerbait puntu onen gañean aitortu deguna* geiago azalduaz. (610, 31)<sup>34</sup>
39. (3) ...; beragatik onekin eduki bear da kontu aundia eta aukeratu onetarako guraso osasuna onekoen **umea, sei edo zazpi illabete gutxienean daukana**, ... (992, 49)
40. (3) ..., bada da **likarda bat uraren eta odolaren bitartekotzat artu litekeana**. (1421, 66)

---

34. Esaldia zalantzagarria da *zerbait* hori har bailiteke zenbatzaile gisa. Atal honetan sartzea erabaki dugu, esanahi plausibleena hau iruditu zaigulako: *lenago puntu onen gañean aitortu degun zerbait geiago azalduaz*.

41. (3) ..., eta etortzen dira ondorenean len izendatutako saltoak eta asnase estua, eta gañera **beste gauza asko guri emen esatea ez dagokigunak**, ... (1443, 67)
42. (3) ..., non badiran gaxoak bakar-bakarrrik umeak izan oi dituanak, eta bai eta ere **beste batzuek, gizon egiñ eta dagoanak igarotzen dituanak**, eta zeñetatik ... (1931, 87-8)
43. (3) ..., eta bai eta ere **egiten dituan mugimentuak, beti gaitz modu jakindako bati dagozkionak**. (1960, 89)
44. (3) ... ; bañan bada beste gaitz esaten ari geran onen antzekoa isillago azaldutzen dana, zeña dan **egiazko garrotilloa, umerik geienak berekiñ eramaten dituana** ... (2032, 92)
45. (3) ..., eta bereala artu bear zaio kargu umeak artutzen duan bularrak izan ote duan mudantzaren bat edo ematen ote dioten **jatekoren bat ongi esteen indarrari ez datorkiona**; ... (2071, 93)
46. (3) ..., zeñetan aditzera eman ditugun umeak geienenbat izan oi dituen **gaxorik ugarietak eta gurasoak askotan etxean ikusi bearke dituenak**; ... (2095, 94)
47. (3) ..., eta irugarrenean izendatuko ditugu **beste zenbait eginkizun bañua artutakoan kontuan eduki bear diranak**. (2197, 99)
48. (4) ..., ez dira esan degun bezela berez itxura jakiñ bat duten gauza batzuek, baizikan **gorputzaren izate moduak, eta beragatik gorputzaren goraberaren mendeen egon bear dutenak**. (55, 8)
49. (4) ..., erraz konturatuko gera gauza egokia izango dala gertatzen dan bezela, ez ikustea gure parajeetan zenbait lekutan oi dan bezela, **arako lenago aitortu ditugun gaxo eta gaitz bildurgarri aek jendea bat batera artu eta pillaka illtzen dutenak**; ... (356, 21-2)
50. (4) ..., eskarlatak oi du bere asieratik berriz beti **eztarriko miña, eziñ ezer irintxirik gaxoa utzitzen duana**, ... (813, 40)
51. (4) ... eta bai eta iñoiz azaltzea **gorputz guziko dardarara bildurgarri batzuek askotan eriotza beren ondorean ekartzen dutenak**. (878, 43)
52. (4) ..., eta edukitzen du orduan **zillar kolorea, bere barruan daukan zorneak ematen diona**; ... (977, 49)
53. (4) ..., zeñak antziñako denboretatik asi eta ikusten badegu leku guzietan beren usarioa ezagutu izan dala, **señalerik onena** da au **beren ondasunaren alde itz egiten duana**. (2145, 97)
54. (4) Gañera **ume eta osasuna biguneko zenbait jendeak askotan bañuak ematen dituen mudantzak eziñ igaroko litukenak**, itxaz baztarrean ibilltzearekin bakarrik arkitutzen dute beren osasunerako erremediorik onena ... (2171, 98)
55. (5) ...; bada **zenbait gaxoren argibideak lenago zer eta nola ziran iñork ez zekizkienak**, gaur argitaratu dira eta onen bidez bai eta ere ipiñi sendatuzeko erremedioak ... (122, 11)
56. (5) Leku onetan dagokigu esatea, gu itzegiten ari geran tiputz gaitza ez dala beste noiz edo noiz ikusi izan dan izen berekoa, bañan askotzat txarragoa, eta daukana **bere izaera jende asko alkarganaturik eta zikinkeriak eta goseak sortuera ematen diotena**: ... (603, 31)
57. (5) Lendabizikoa, txertua kentzen zaion umeak izan bear duala **osasun onekoa eta odolean lenago esandako gaitz gaiztorik ez daukala dakiguna**: ... (1017,50)<sup>35</sup>

35. Esaldia kontsidera liteke bi aposizio desberdinetakoa. Guk hala ere, beste honetara interpretatu dugu: *odolean lenago esandako gaitz gaiztorik ez daukala dakigun osasun onekoa*.

58. (5) Bukaera eman bear diogu arkibide oni izendatuaz **beste oitura txar eta galgarri bat urdalleko eta gibelego gaitz askoren sortzalea gaurko egunean geiegi jende artean zabaldurik dagoana**, ... (1394, 65)
59. (5) Edozeñek erraz antz emango dio ez dala gauza zalla gertatzea, gure parajeon gertatzen dan bezela, izatea **aiñbeste jende modu askotako kolpe, ebaki, edo ezur autsi eta atere izan oi dituztenak**, ... (1577, 74)
60. (5) **Beste gauza bat nekazari eta langille jendearen artean ustez obetoago izateagatik askotan egiñ oi dutena** eta egiñ bear ez dana, da ... (1830, 83)
61. (5) **Ume txiki ezpaiñ lodi edo aundiakikoa eta gañera arpegi zabala, eta askotan oi dan bezela lepoan koskorrak daukana**, esan liteke dala odol txarrekoa, ... (1989, 90)

Sail honetakotzat hartu dugu segidako esaldia ere, nahiz interpretatzeko arazoak ditugun:

62. (0) ..., bertako agintariak ipintzen dutela begiramentu aundia puntu onetan, alegiñak egiñaz gertatzen danean, ez dediñ zabaldu beste lekuetara **gaitz pegakorrik azaltzen dan artatik**, ...<sup>36</sup> (351, 21)

#### 5.1.2. -(e)n... bidezko erlatibo hautsiak

63. (1) Beste **okertasun bat oi duana eskarlatak** da gultzurrenetako gaitza zeñak ... (876, 42)
64. (2) ...; bañan beste batzuetan sortutzen dituzte ere **gaitz pegakorrik, datozenak txertu baten antzera** nola diran ... (115, 10)
65. (2) **Beste gauza bat eduki bear dana kontuan aurgintzan** da ez dezala emakumeak (oitura gaiztoa askok daukaten bezela) egiñ aurra zutik edo besteren madalean jarrita dagoala; ... (1817, 83)
66. (2) ...; eta irugarrengo, beste **zenbait gaxo edo gaitzetan** zeñak emen eziñ guk bakoitza izendatu giñezken **eta gelditzen diranak medikuaren eginkizunetzat**, nola diran, ... (2161, 97)
67. (2) ..., geienean artu litekeala goizetik, eta bai eta ere ordu bat edo biz aurretik gauza gutxi bat nola dan kafe-esne, edo arrautza bat, edo **onelako edozeiñ gauza usariyo daukana bakoitzak** artu eta gero; ... (2206, 99-100)
68. (3) ...; eta ala, ikusten da erri aundietan zeñetan bizi diran aldamen banatan aberatsak eta pobreak, azaldu oi dirala **arako gaitz izugarri zenbait, batzuetan garbitu izan dutenak eziñ konta ala jende**; ... (339, 21)
69. (3) **Beste gauza bat gertatzen dana esaten ari geran gaitz modu oekin** da, ez dirala biziro gutxitan ez bada azaltzen beiñ bañan geiagotan norbaiten gaiñ bizitza guztian, ... (782, 38)
70. (3) ..., zeñatatiik lendabizi izendatu bear diranak diran birrikak, daudenak beren barrunbe guztia kanale txiki batzuez beteak, eta oek berriz beste eziñ konta ala **zaiñ txikiz estaliak daramatenak gorputz guztiko odola leku aetara**; ... (1033, 51)

36. Esaldia ez da interpretatzen errazegia. Testuaren berrargitaratzaileak *ordutik* bezala ulertzen du ohar batean testuko *artatik* hori. Baina interpretazio hori ere ez da argiegia (testuan ez da beste inoiz erabiltzen *artatik*, *ordutik*-en zentzuan). Guk aukeratu interpretazioa horrelako zerbait litzateke: *ez dadin zabaldu beste lekuetara gaitz pegakorrik azaltzen den haren itxurakorik* edo. Gaztelaniazko testuak ez du laguntzen puntua argitzen.

71. (3) ..., etortzen dirala oen medioz eta ondorenean, jateko gogorik eza, gorako aizeak botatzea, bomitoak eta urdalleko pisua, edo **leku ortako oñazeak aiñ naigabe aundiak ematen dizkatenak** *au gertatzen zaionari*. (1340, 63)
72. (4) Azkenik, esanaz badirala **beste gaxo batzuek** iritxi gabetanik tiputzaren gogortasunera, **izan oi dutela beren jarlekua urdalle eta esteetan**, ... (607, 31)<sup>37</sup>
73. (4) Asta naparreiya da **gaitz jakiñ bata besteren antzik gabekoa** *eta zer ikusirik ez daukana* *naparrei zoroa deitzen diogunarekiñ*. (901, 46)
74. (4) ..., zeñatatik lendabizi izendatu bear diranak diran **birrikak, daudenak beren barrunbe guztia kanale txiki batzuek beteak**, ... (1032, 51)
75. (4) Bada ere **beste gaxo bat gurasoai bildurtasun ikarazkoa ematen diotena gertatzen danean**, zeña dan garrotilluaren itxuraz jantzi eta azaldutzen dana. (2020, 91)
76. (5) Azkenik, esaten ari geran gaitz sortutzalle oetan badira **beste batzuek** zeñai deitu diogun zapamorroak, *eta jaio eta bizi litezkeanak naiz gorputzetik kanpoan nola bere barrunbear*; ... (118, 10)
77. (5) Era berean beste medikantzak ere dauzkate bakoitzak **bere izen jakiñak ipiñi zaiztenak** *zer eta nola erremedio aetakoak egiten dituzten bakoitzari dagozkion beargiñak*, ... (144, 11)
78. (5) Gañera berriz parajeko betiko berdantza eta aize garbia, eta iturrietako ur ugariak, dira **beste aiñ beste gauza egiten dutenak gure bizi leku au izatea ezagutzen diranetan onenetakoa**; ... (201, 14)
79. (5) ..., bada oetatik badira **batzuek merezi dutenak apartako lekuan beren gañean itzegitea aurreragoko argibide batean egingo degun bezela**; ... (248, 16)
80. (5) ..., guziak adierazotzen dute dirala **jende indartsu eta pizkorren usariyoak, jakiñ izan ditugunak gordetzen gauza gogoragarritzat bezela gure aurreko guraso eta aitona zar aetatik**. (318, 19)
81. (5) ..., badira **beste zenbait uste dutenak medikantza egiñ litekeala ezer ikasi gabe**; ... (501, 26)
82. (5) ...: erri bateko urak txarrak izatea eta ez bear bezelakoak, da bada, **gauzarik lendabizikoena tiputza azaldu lezakeana orretarako erriko jendeen artean**. (621, 31-2)
83. (5) **Beste gauza bat** *zer ikusi aundia daukana gaitz esaten ari geran au sortutzeko*, da nor bera bizi dan etxearen edo bizilekuko izaera modua. (636, 32)
84. (5) Ez degu uste era berean, zenbait kanpoko parajeetan usariyo dan bezela, eman bear dirala busti aldiak iturriko ur otzarekiñ bada au gogorra derizkiogu eta gañera ez da **gauza ezereren erreparo eta arraxkurik gabe egiñ litekeana gertatzen dan bezela beste aldera bañu epelakiñ**. (714, 35)<sup>38</sup>
85. (5) ..., bada ez da gaurko egunean nazioen kastigu bildurgarri antziñako denboretako eriotzagille ura, baizikan **noizik beiñgo ostalaria, geroago eta gutxiagotan gure artean edukiko deguna txertua zabalduaz dijoan bezela**, ... (832, 40)
86. (5) ..., bada ez da gaurko egunean nazioen kastigu bildurgarri antziñako denboretako eriotzagille ura, baizikan **noizik beiñgo ostalaria, geroago eta gutxiagotan gure artean edukiko deguna txertua zabalduaz dijoan bezela, eta azkenik begien aurretik**

37. -(e)la atzikia darabil testuak legokiokeen -(e)nak-en ordeaz, beharbada tarteko *esanaz* aditzak eragina, ez baita halako beste nahasterik gertatzen testuan. Nolanahi, ikus 4.9.3. atala nahaste hauen inguruko oharrekin.

38. Esaldia atal honetan kokatzeko bezainbat arrazoi da izen ardatz determinatugabeen ondokoan sailean egiteko (autoreek ez darabilte inoiz *gauz*, eta ez dakigu *gauza*-k mugatzailerik duen). Hemen kokatzea erabaki dut.

**alde egin bear diguna** *gure aldetik jartzen ditugunean bear bezela onetarako bear diran erreparoak.* (834, 40)

87. (5) ... **beste oitura txar eta galgarri bat urdalleko eta gibealeko gaitz askoren sortzalea** gaurko egunean geiegi jende artean zabaldurik dagoana, eta *batezere kalte izugarriak gazte jendean egiten dituana* biurtuaz azkenerako gizona ganadu baten antzera eta gauza nazkagarri bat balitz bezelako itxurara. (1395, 65)
88. (5) Atzenik, bada **beste kanale aldi estu eta txiki bat** armiarma sarerik politena beziñ estua, **dagoana** ere zabaldurik beste zaiñ aek bezela gorputzeko baztar guzietan eta zeñak ... (1418, 66)
